
AZOKA



Txema Arinas



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

TXEMA ARINAS

azoka

Badira sei urte inguru ez dudala nire hiriko alde zaharra zapaltzen, Oviedoko unibertsitatean Aro Berriko Historia irakasteko aukera suertatu zitzaidanez gero. Banoa orain nire jaioterriko betiko lagunaren eskutik, gogo handirik ez dut baina. Badakit nola edo hala, gogoz eta bihotzez bakarrik baldin bada, bertan hazi naizela, garela, gure etxeetatik at gogoko zein abaro genuen hiriko auzo ia bakarra zen-eta, ni gizaki gisa benetan koskortutakoa. Izan ere, oraindik gogoan dut bertan igaro nuen azkenaldia, orain dela zazpi urteko uda partea hain zuzen. Banuen doktoretza tesia bukatzeko premia larria eta koadrilako batek bere alde zaharreko pisutxua laga egin zidan, berak oporretan kostalderantz ihes egin orduko. Uda hartako bero sapa ikaragarria izan zen, ezin nuen hitz bat ere idatzi Aro Berriko euskal handiki ilustratuen kontura, nik hautaturiko gaia nola edo hala Euskal Herriaren norabide historikoa eragiteko zein zuzitzeko erabilitako argudio zein mitoen iturriak erakustearren. Saiatu, saiatu egin nintzen hamaika aldiz nire idazlana behar bezala taxutzen, txukuntzen, ia txirtxilatzen ere, baita beti alperrik. Banuen gogoa, beharra, zertxobait freskagarria edateko, eta jakina, nire adiskidearen hozkailuan ohiko yogur galduz gain ez zegoen modurik garagardo, sagardo edo inolako ardorik erosketaren egunaz bi egun baino geroago gordetzeko edo. Halako kinka batean, hau da, egarriari ezin eutsiz, ordenagailuko pantailari ezin erreparatuz, bero sapak urtu eginik, kalera jo beharrean nengoen ia arnasestuka. Eta kalean, batez ere Alde Zaharreko hotz eta meharretan, zera, galbidea bakarrik topa dezakezu nik orduan topatu bezala, eta horrek badu delitua orduan hirian lau katu besterik gedatzen ez zirelarik.

Sei urte inguru pasa egin dira nire hiriko alde zaharreraino igo ez naizela. Ez zait ezer galdu, erantzun ohi diot nire buruari, hirira bueltan nagoela eta norbaitek bertaraino laguntzeko proposatzen didanean. Nire lagun zein ezagunek ordea auzoa zeharo itxuraldatu egin dela egiaztatu ohi didate, inoiz ez bezala txukun-txukun eta aspaldiko partez ere balioztaturik; baina ni beti entzungor. Ez daukat inolako gogorik betiko kale zahar eta meharretan sisi-saga ibiltzeko, nire nerabezaroko aterpe izan ziren kobazuloetan behin berriro galtzeko, orduko zenbait musurekin ezustean topo egiteko; horrela ibiltzeko propio hiriaren goiko parteraino igotzen da-eta. Banago, ihardesten diet etengabe goazen baka erasotzen didatenei, nahikotxo koskortuta hamasei urteko umemokoen antzera txiribogarik txiriboga ibiltzeko, edanaren edanez edozein kale kantoitan behin berriro goraka egiteko, kantoian bertan txiza ere egin izanagatik auzoko edota udaltzainekin-eta tirabiretan hasteko, bai kantoian bertan eta antzeko beste hamaiketan egundoko atxur batekin noraezean gora eta behera joateko; gazte eta ero, zentzatuko gero.

—Gaur hileroko Ertaroko Azoka da, ezin gara faltatu!!!

Nire lau lagunetako Oskarrek hitzegi behar, batez ere nire neskalagun Sarak oraindik behin edo bakarrik joan den alde zaharreraino parranda bila igo gaitezen motibo polit bat izan dezan.

—Ez zaizkit batere gustatzen gezurrezko azoka horiek, ez dute apenas zerikusirik Ertaroko egiantzeko ezerekin eta, gainera, badakizue ni Aro Berriko Historia irakaslea naizela, ez zait batere galdu halako txozna edo eskeintza folklorikeko logiko-sasihistoriko zabaleko salgunen ondoan

—Esaidazu ba zer egin genezake bestela larunbat goiz sargoritsu batean gurea bezalako hiri txiki eta hits honetan —egin dit arrapostu koadrilako Alaznek, hots, koadrilan beti arrapostu egin ohi didan ia bakarra.

—Ez dakit ba, baina halako eguraldi ederra gozatzeko joan gintezke urtegi alderantz...

—Nik delako azoka hori ikusi nahiago nuke —erabaki berri du nire laztan asturiarrak.

—Goazen ba, baina beldurrak nago jendez gainezka dagoen.

Eta beldurtu bezala Alde Zaharraren goiko parterantz doan aldapa luzea zapaldu orduko bidearen bi ertzetan ozta hurrenez hurren zabaltzen zaizkigun txoznetan jende andana ia elkarren gainean pilatuta topatzen dugu. Ez dakit goraino iristeko gauza izango naizen hainbeste jende artean nekatu ala zoratu baino lehenago. Uztaileko bero sapa jendilajearen izerdiaz nahasketan hasiko da eta honekin batera bultzadak, zapalketak eta baten batek daki noiz edo non ostikoak zein zaplastekoak ere bai. Oskar eta Mikelen gorputzarren artean babesten saiatzen naiz bizkartzain gisara, alabaina. Tamalez, nik bi lagunok polito ezagututa badakit ondo baino hobeto euren egarri aseezina nolabait baretzeko asmoz garagardo hornigailuren bat antzeman orduko harantz joango direla ziztu bizian. Eta esan bezala Alde Zaharreko lehenengo karrikaren sarrerara iritsitakoan El Penultimo izeneko taberna barruraino sartu egin dira zoro moduan gainontzekoei eta ia tutik esan gabe. Ni ordea kale erdian geratu naiz Amalia eta Mikelen emazte zein bizi osoko lagun-min dudan Alazneren ondoan.

—Ez gara sartuko kobazulo batera, ezin dugu hau bezalako egun eguzkitsu bat barra baten ondoan alperrik galdu —ebatzi du Alaznek.

—Noski ezetz, begira gainera zer nolako giro polita dagoen kalean —gaineratu du nire azukre kozkorak inguratu, bultzatu, zapaldu eta doi-doi kale barrenera arrastaka garamatzen jendetzari erreparatuz.

Ganibeteria kalean sakabanatzen diren txozna guztietara luzatzen dituzten bi nesken begietatik ihesi egin nahian nire beste bi lagun zaharren beharra sumatzen hasi naiz behin berriro babes bila. Zoritzarrez, Espainako herri guztietako jakiak zein edariak, ustezko edo sasi artesautza, bertako zein kanpoko edozein borroka politiko-ekologiko-sexologikorekin elkartasun gisako hamaika apain-bitxikeria, aukera aprobeztatuz ere azokaren gai edo leloarekin zerikusirik ez duten tramankulu pila eta abar luze eta batez ere trakets bat eskaintzen dieten saltokiz saltoki ibili eta gero bultza, zapal edota saka egiten ari den jendaldeak kale goienereraino eroan gaitu ia herrestaka. Nazka-nazka eginda nago eta nire bi lagun ikusle-mikusleen asperrezinari muzin

eginez Algareria plazatoraino ailegatutakoan ia ustekabez topatu dudan txozna batera jo egin dut zer edo zer edatearren.

—Hemen Galiziako orujoak bakarrik saltzen ditugu, sorgin orujoak, alegia -azaldu egin dit beldurrezko filmetan zein urtero egiten dituzten Inkisizioa eta Euskal Herriko sorginak erakusketan ikusi ditudan soineko piltzarrez mozorrotuta dagoen eta begi sakon ilunei, sudur luze koskordunari, kokotx zorrotzari zein irrifarre oker ezin maltzurragoari erreparatuz meiga bat besterik begitantzen ez zaidan atsoak.

—Tira ba, jendegiro itogarri honi aurre egiteko barrenak behar bezala berotu beharrean nago, emaidazu ba belarrezko bat! —atsoak buztinezko kikara bat luzatzen dit, dzanga-dzanga hustu orduko hiruzpalau bider gehiago bete egingo didana

Dagoeneko aurrean irri-maltzur dudan atsoa ez da lehen bigitandu zaidan gizaki beldurgarria, neska lirain eta atsegin bat baino, nik uste limurtzen eta guzti saiatu naizela. Ez litzateke harritzekoa, edaten dudan aldiro sen apurra ziplo galtzen baitut, laster konortea ez baldin bada. Baina, tira ba, kikara ohol gainean lagatzera nindoala atso lirainak ala neska zaharrak ospa egin du. Ez dago inor txozna atzean nire kikara berriro betetzeko eta nik badut, ez gogoia, premia baizik, zurrutean etengabe jarraitzeko. Zain nago marisorgin tabernaria noiz bueltatu. Baina alperrik, ez dator inor. Harentzat kalte, ez baitiot pagatu. Izan ere, atso galziarraren txozna ondoan dagoen bezero bakarra naiz. Eta bada apurtxo bat kezkatzeko, edo gutxienez zerbait arraro susmatzeko, gainontzeko txosnak mukururaino daude epokaz, hots, Erdi aroko soinekoek edo, mozorrotutako jendearekin. Algara, zer esanik ez, plazaren izenari ohore eginez edo, nagusi da. Badirudi plaza honetan behintzat Udalak Ertaroko jantziez kalera irteteko aldarri egin duen erregua seriotan hartu egin dutela. Nik uste zer edo zer antolatuta dagoela azoka nolabait erakargarriagoa egite aldera, merkatua merkatu. Arrimatzen naiz aldamenekora ogiak edota opilak saltzen dituen gizakote bizardunari ustezko ikuskizunaz galdetzeko asmoz.

—Maisu jauna, hemen egin ohi da betidanik osteguneroko azoka. Zigorrak-eta Ganibetaren Enparantzan ematen dituzte.

Oso zolia gure bizar sarriko okina, zirtoa estimatzen diot, benetan, baina ez dut gogo handirik denbora txorakerietan alperrik galtzeko, Amalia eta Alazne galdu egin zaizkit eta laster ez topatzekotan errua niri botako didate, noski; non sartu zara, mozkorrontzi hori, gu saihestu eta atoan edanari jo diozu. Ez dut gogorik, baina bai oruxoak edo eragindako gosea.

—Zein opil mota da hori? —galdetzen dut.

—Arrontzopila, mami barruan arraultz bat daraman opila —erantzun dit okinak benetan harrিতuta.

—Tira ba, bat hartuko dut, zenbat da?

—Burdin gorrizko Vellón bat.

—Zer? Nik euroak bakarrik ditut, erantzuten diot erronkari, eguneko txantxaz aspertzen hasia naiz-eta.

—Santxeteen antzekoak baldin badira, niri bost! —begikeinu bat eta guzti egin dit bizar sarrikoak.

—Ez dut ezer ulertzen —amore ematen dut dagoeneko asper-asper eginda.

—Kanpoko baldin bazara marabedietan ere ordain dezakezu.

—Bai? Ni hemen jaioa naiz orain dela berrogei urte.

—Adarra jotzen ari zara, maisu jauna?

—Maisu jauna? Nola dakizu zuk irakasle naizela?

—Aizu, maisu, ni gizon apala naiz, ez dut arazorik nahi aguazilekin...

—Aguazilak-eta badaude, bai performance ederra gaur montatu egin duzuen, baina nik opiltxo bat bakarrik gura dut.

—Akabo, aski da! Ez dakit zer arraio da perfomantze hori, baina ez dut ezertan aguantatu behar zure moduko adarjole bat, alde hemendik ala bestela gainegur ederra emango dizut.

Banoa, banoa, diot, ez dakit zenbatgarren aldiz. Banoa txunditurik bainoago aztoraturik, ni neu antzezpen honen protagonista edo beharbada bufoi nagusia bakarrik bilakatu nahi nautelakoan. Banoa, bai, karrikan gora noraezean, nigana algaraka datorren giza uholdeak behin berriro ia tatarrez eramana. Badirudi nagoen karrikan goiko partean, hau da, Done Jurgi katedraleko plazan bertan, beste ikuskizun moduko zer edo zer hastear dagoela. Ez nuen asmorik, ez, baina dagoeneko katedralaren aurrean nago eta ez dut oso gogo zein indar handirik uholdean murgilduta Algareriaraino bultzaka edo ostikoka bueltatzeko. Ez dit axola, esaten diot nire buruari zeharo ganorabako, kalean dagoen giro zoroa, benetan arraroa, bor-bor dago, Amalia eta Alazne parranda zale porrokatuek hain gustuko dutena hain zuzen. Ez dut ezertaz kezkatu beharrik, seguru asko bi neskak ezin gusturako daude horrenbeste titiritero eta purzilero artean. Baliteke haietako norbaitzuekin flirteoan aritzea eta ez naiz ni izango jolas-solasa zapuztuko diedana. Amaliak behintzat badu eskubide osoa noizik behin nirekin esne mamitan bizi dela, geurea amaigabeko ezteibidaia bat bailitzan, inoiz berriro topatu ahal izango ez duen gizonezkorik bikainena naizela une batez ahazteko. Gainera, nik uste bioi ezin hobeto komeni zaigula aspaldiko partez hain estu-estu lotzen gaituen soka sendoa nolabait arintzearen. Alaznek, ordea, eta badakit honekin oso maltzurra izango naizela, ezinbesteko du edonorekin flirteoan aritzea, neska dezente kozkortu egin baitzaigu eta bada garaia bere

txortagabetasunarena seriotan har dezan/dezagun. Denontzat onuragarria izango da, batez ere denok etengabeen eta edozein huskeriagatik izorratzeko duen joera nola edo hala eta posible baldin bada bakarrik ordu gutxi batzuek alde batera laga dezan. Bien bitartean, eta benetan diot, zerbait egitearren, hainbeste komedianten zein mozkorrate artean erabat ez nazkatzeko, honaino ia indarrez ekarri nauen uholde barruan azkenean ez itozteko, agian ere bi neskekin berriro topo egin arte denpora alperrik galtzeko aukerarik onena, katedralaren ataurrean antzeztekotan dagoenari adi-adi egongo naiz besterik ezean. Badago antzezle pila, gehienak sarebegiz egindako armadurez mozorrotuak, haietako bakan batzuk zaldi gainean, larruzko atorrak zein kapelak janzten dituzten baleztariak eta nire ustez ikuskizunaren nondik norakoak ondo baino hobeto adierazten dituen banderak eta zutoihal bat airean harro-harro eta etengabe astintzen egiten dituzten beste sare-begidun batzuk. Haizeak kulunkatzen duen trapu horian azaltzen den arrano beltza antzeman orduko espero zaiguna benetan negar egiteko modukoa izango delakoan behin berriro ahapeka bakarrik esateko gauza naizen zoazte denak pikutara botatzen dut. Ez dakit zelan lortzen duten, zer-nolako abilezia edota inpunitate-konplizitatea duten betikoek halako saltsetan beti protagonista bilakatzen dituzten ikuskizunak antolatu ahal izateko, gehienon jai gogoia nola edo hala zurrupatzeko, gainontzekoek inola ere begi onez ikusi eta are gutxiago irentsi behar dugun panfletogintza agoantatzeko. Zer pentsa bestela arrano beltza, edo denok dakigun nortzuen ikurra den hegaztiñoa ikusi eta gero, betikoen ekitaldi batean nagoela halabeharrez, gaurko maskaradaren aukera aprobetxatuz antzinateko eta batez ere ustezko euskal/nafar erresuma baten independentzia mitiko-hipotetikoa aldarrikatzeko asmo benetan erotan. Tira ba, badirudi hau dena betiko leloarekin bat datorrela, bazen behin euskaldunak batu eta euskaldunek populaturik zein gobernaturik eta guzti erresuma bat, gutxi gora behera Sangry Lá famatuaren antzekoa, baina vascoekin, badakizue euskaldun amesgile porrokatu guztiok, Sancho el Fuerte, Sancho el Fuerte si viviera, uniría a los navarros para defender nuestras fronteraaaaaas, que ahora ya no son los moros, son cristianos con txisteras... Tira ba, aitortu ere aitortu beharrean nago ezker abertzalekoek sarri baino gehiagotan benetako maskarada burutsu eta barregarriak antolatu ohi dituztela; jakina, behin hauekin batera datorren demagogia sektario-panfletario osoa alde batera utzita. Besterik ezean Done Jurgi katedralaren aurrean paratu naiz ikuskizunari adi-adi eta dagoeneko Amalia eta Alaznerekin zeharo ezaxolaturik, nire ustez beraiek nitaz egin bezala. Eta horra hor mozorroturiko jendilajearengandik ezagun, oso ezaguna nire kalte zein akordurako, dudan personaje bat zaldi gainean eta ezpata handi bat airean astinduz bereizi berri dela. Ezin sinesturik nago, nor bestela, hemengo fakultatean, kontratu fixo barik eta ikasle zein zenbait irakaslerekin etengabeko liskarretan, historia eskolak ematen ari nintzela nire mamu beltz partikularra bilakatu egin zitzaidan Martin Guzurmendi lankidea, Filosofiaren Historia irakaslea, euskal abertzaletasunaren esentzien zaindaria, euskal adarreko gainontzeko irakasleen eredu paregabekoa eta batez ere halabeharrez jarrai beharrekoa, gehienok badaezpada, hau da, egiazko unibertsitate nazional bat eraiki nahi zuten guztientzat maisu bikaina, eta horren hain alde ez geundenontzat ordea salatzaile zein zirikatzaile amorratua, inola ere eta ezer barkatzen ez ziguna, gure saldukeria eta batik bat gure ezkutuko erdaltzaletasuna agerian uzteko beti gertu zegoena.

—Pro Libertate Patria Gens Libera State!!! Gora Nafarroako Erresuma, Gora Antso VI.a Azkarra!, Gora Euskal Herria askatuta!

—GORAAAA!!! —bertan euren Ertaroko halamoduzko mozorroez harro-harro jantzita, eta ene ustez mozkor-mozkor ere -bestela batzuen aurpegietan nabarmentzen ditudan negarrak edo erabat ulertezinak begitantzen zaizkit-, bildutako guztiak batera.

Ez dakit barrez edo iguinez lehertzekotan nagoen, oraingoan bai pailazokeria galanta, baina ez ni harritzeko bezainbeste, fakultatean nengoela banekien nik tipo hau komendianta aparta zela, batez ere zer-nolako antzeppenak egin ohi zituen ikusita, haietako batzuk, gehienetan ETako ekintzaileren baten atxiloketa salatzeke klase uztea prestatzeko asmotan edo errektoretzaren edozein erabakiren kontra protesta egiteko sinadura bilketa bat antolatzerakoan, eta noski, gogokoen zuen antzeztokia irakasleen klaustroa; ez naiz ni izango Sir Laurence Olivieren antza eta guzti zuela ukatuko ziona.

—AIZUE, URRAIZTARROK!, GAZTELAKO ERREGEAREN ARMADAK ZEIN BIZKAIKO LOPE DE HARO JAUN TRAIIDOREAREN OSTEEK EZ GAITUZTE MENPERATUKO!!! AURRE EGINGO DIEGU ETSAIOI HIRIA ERRENDATU AURRETIK! IRABAZI ALA HIL!!!

Agian Sir Laurence Olivierekin egindako konparaketa gehiegizkoa izan da. Baina, tira ba, badirudi Guzurmendiren antzeppenak arrakasta handia lortu duela jendaurrean, betiko lez egia esanda. Meritoa, aldiz, ez dut uste oso apartekoa denik, bistan dago katedraleko plazan bildutako gehienok alde aurretiko publiko esker onekoa dela, publikoa halakoa ez baldin bada beti-beti. Erreparatu besterik ez da egin behar oraindik goraka, purrustaka edo txaloka ari diren aurpegi sutsu zein hunkituetan, haietako asko eta asko hiriko giro abertzaleko taberna, manifa zein mota guztietako ekitaldietatik ezagunak. Guztiz arrotza egiten zaidana, horratik, Guzurmendik antzezten duen pertsonaia, batez ere eta dagoeneko ezker abertzalearen mitoen zerrenda osoa ahaztuxe dudan aldetik. Hori dela eta, jakiminak kinaturik behinik behin, aldamenean dudan Euskal Herriko Historia liburuetako irudietan bakar-bakarrik ikusitako kukurutxo erraldoi baten moduko txano bat janzten duen andere bati galdetu egin diot nor demontre ote den guztioi aldarri egin digun zaldun prestu eta ausart hori.

—Ez dakizu ba, hiriko tenentea da, Martin Andia goitizenekoa, Gure Erregea Mairu herrian dagoela gaztelauengandik babestuko gaituena.

—Martin Andia? Ba nik esango nioke Martin Txipia... —Bota egin diot andereari zirto moduan.

Badirudi nire zirtoak edo ez diola grazia handirik egin, alabaina. Andereak bestoskoa erakutsi eta segituan inguruan zeuden saldaduei dei egin die guztiz asaldaturik.

—Traidore bat, badago gure artean traidore bat gure tenentea iraindu duena!!!!

Ene, bai antzesle kaskarra, emakume hau, nire ustez gainantzezten du, horregatik testu ikasia gutxi eta garrasia, berriz, nagusi. Baina ez dut inola ere uste andre honena harritzekoa denik. Zer espero bestela, hemen bilduta dauden antzezle gehien-gehienak amateurrak omen dira, gaur mozorroa jantzi eta kalera jai giroan adoretzu irten direnak. Gaur da jai eta badirudi ere borroka egun berezia, katedraleko antzezpen historiko-politiko-errebendikatibo honetan parte hartzen ari diren sasi-antzesle edota figurante gehientzat. Gora Nafarroako Erresuma, Gora Antso VI.a Azkarra!, Gora Euskal Herria askatuta!, aspertzen naute euren betiko leloez, aspertzen nau batez ere zaldi gainean dagoen Guzurmendi, istorio honen protagonista nagusia, tenentea, andreak behin eta berriro aldarri egin bezala, bere handinahikeria sufritu nuenez geroztik gizon txikitat izan dudakomediante handia, hots, Martin Andia emakumearen esanetan.

—Sentitzen dut, emakume, nik zaldi horren gainean dakusadana gizon txikia da, Martin Txipia.

Ez nuen deus esan behar, nahiz eta andrearen arrandia parranderoa ahalik eta maltzurren izorratzeko gogo bizia izan, hanka sartze handia egin dut, atoan komediaren protagonista omen zen Guzurmendi jaun/tenenteari itzal egin baitiot. Oraingoan ere gogora etorri zaizkit falkutateko biltzarretan Martinen handikeria patrioteroez gero zeharo aspertuta, hitza kentzen niola gauzak bere onera itzul zitezen ahaleginetan, gehienbat unibertsitatearen funtsa zein zen nire irakaskideei nolabait gogoratzeko asmo eta gogoz, hau da, delako borroka nazionala norberaren aukera soila zena, baina ez irakaslegoarena guztiarena, batez ere unibertsitateko irakasle guztiak bera bezain abertzale sutsuak ez ginen aldetik. Alperrik, ez zidan sekula barkatu, ezin zuen, berak defenditzen zituen teoria nazionalak eta iraultzaileak oztopo zitzaizkion gainontzekoen ikus/pentsamoldeak aintzakotzat hartzeko, kontra, edo agian kexu besterik ez, geundenok ez genuen bere begirunea merezi; balizko arerioak omen ginen, biltzar aretotik biraoka eta ia harrika ere behin betiko botatzea merezi zutenak. Ez zidan orduan barkatu, eta ez dut uste oraingoan barkatuko didanik, erreparatu besterik ez diot egin behar delako Martin Andiak luzatzen didan begiratu zorrotzari, odolez blai antzematen zaizkion begi zein hitzetan argi eta garbi ikus dezakedanez, bereziki nire burua bere betoskoaren helburu somatuta.

—Traidorea, traidorea! Hartzazue preso gaztelauen lagun hori!!!!

Ezin sinetsirik nago, baina ez dut ere denborarik gainera datorkidan zorakilo andanari aurre egiteko, are gutxiago guztiz alperrikakoak izango ote zaizkidan indarrak edo argudioak biltzeko. Ospa egin beharrean nago, nahitaez eta lehenbailehen. Nora ba, Katedraleko plaza txoroz gainezka dago. Halaber, ez dago Algareriarantz bueltatzeko biderik, bertan bildurik zeuden gainerako komedianteak beren tenentearen oihuei erantzunez honaino tropelka datoz-eta. Alde egin behar dut hauteman berri dudak zirrikitu bakarretik, Fray Millan de Suso kalearen ilunpetik lasterka Anda-Oñate Jauregiraino, orain inon ez dakusadan jauregiraino, hiriko harresiaren ondoko zurezko edota adreiluzko etxe txatxar batzuk baizik, baina bai ordea Fran Millanekin izkina egiten duen Arraindegi Kantoian bertan betiere egon den aurreneko harresiaren sarbide nagusiko burdin hesi erraldoia. Kantoian behera noa arrapaladan eta

beldurrak nago hesiaren edo zentinelaren lantza edota ezpaten kontra oldartuko naizen. Zentinelok, ordea, burdin hesia altxatu egin dute ezustean eta batez ere ordu onean. Ez dakit nik ba komedia petral honen nondik norakoan arabera zer topatuko dudan hesiaz bestealdean, baina tira, nire atzetik segika zetorren jendentza asalduaren beldurrez edo kanpoan zain ote zuten etsai ezezagun bati erasoan zetorrelakoan, zentinelek paso eman eta nik ez dut aiko-
maikorik egin begiak ia itxita, harresia zeharkatu eta Urraitz inguruko bide, larre eta galsoroetan barrena antxintxiketan noa hiriko lau dorreen itzal edonongoa oso atzean utzi arte.

Hain noraezean eta izaturik nindoan nire arerioengandik ihesi hiri inguruko paduretaraino iritsi naizela oharkabeen. Oinak behintzat uretan sartuta ditut. Falta nuena gaurko eldarnioaren nondik norakoak osatzeko, hemendik irtendakoan ohera zuzen-zuzen joango naiz malariaren antzeko gaitz batek jota edo. Banago seguru, aldiz, Martin Andiaen komediantek tropak ez didala honaino segituko behinik-behin. Behin uretan sartuta ere bazterretik aldenduko naiz badaezpada, ahal baldin badut aurreko basotxoraino aterpe bila. Batzutan nire gogoetak arinegi egin ohi ditut, oraingoan bezala. Uste nuen basoraino ailegatuko nintzela ura belanaren azpitik eta ezin, banago bide erdian eta ura ia gerriraino igo berri zait, hau da, ni erabat dar-dar jarriz. Urmaela zeharkatu eta babestuko ote nauen makaldira urez blai sartu orduko bai ezuste galanta, orain praktetan kaka eta guzti egiteko modukoa. Badirudi nire zain zeudela, baina, zinez diot, nire orain dela gutxiko jarraileen antzera mozarrotuta dauden ez dakit nortzuk.

—Nor zaitugu? —galdetzen didate aldarrika zein lasterka niregana datozen sarebegiz egindako soinekoak janzen dituzten gerragizonek ezpatak eskuan luzetara.

—Harrapatu eta urkatu eta guzti nahi ninduten hiriko gaizkile batzuegandik ihesi nator —baina, nortzuk zarete zuek? —ausartu naiz galdetzen tentel-tentel.

—Bizkaiko Jaunaren gizonak gara,

—Eta ze demontre ari zarete hemen? —oraingoan zuhurgabe baino txundituago.

—Gure jauna Diego Lopez de Haro Gaztelako Alfonso VIII erregeari laguntzera etorri da Urraizko hiribildua konkistatzearren.

—Zer? —ezin naiz egon harrituagorik gaurko Ertaroko Azoka nola edo hala animatzeko antolatutako omen duten komedia izugarri honek.

—Orduan Martin Andia horren kontrakoak zarete, hiriko tenente nafarra eta segika nituen gaizkileen burua —komediari men egiten erabaki dut.

—Bai noski, horixe da Nafarroako Sancho VII.ek Marokorantz alde egin baino lehenago hautatu zuten hiriko buruzagia.

—Nik esango dizuet Martin Andia delakoari buruz jakin nahi adina —banago ni orain komedia honetan bete-betea sartzeko irrikan.

—Zatoz gurekin ba, pikotara eroan gura zintuztenen kontra lagunduko diguzu, baina bitartean soineko busti hori erantzi, gorputza xukatu, beste berri bat jaso, eta gero baliteke jan, edan eta agian txortan ere egiteko parada izatea. Badaude gure artean zu bezalako urraiztar asko eta asko nafar erregearen gehiegikeriez asper-asper eginda daudenak.

—Gehiegikeriak?

—Bai, edo bestela zergatik uste duzu bertako hainbeste handiki dagoela gure alde: Areta, Basurto, Bustamante, Rojas, Uriarte, Zamudio ...

—Ez dakit ba, niri egia esan komedia honek guztiak berdin dit, ni ez naiz inoren seme, ez dut odoleztatzeko lurjabegorik, eta are gutxiago inolako erregeari traizio egiteko gogo edo asmorik.

Ez nuen azken hau inola ere esan behar, hau badirudi betoskoen eguna. Bestela nola azaldu behin berriro, baso zein landetan barrena, mehatxuka eta herrestaka eramatea gudaroste trakets eta ergel honen buruzagi duten Diego Lope de Haro jaunarenganaino.

—Hona hemen, jauna, basoan guri barrandan omen zen arlote bat —azaltzen dio Bizkaiko Jaunaren kanpadenda itzel dotoreraino lepotik ia ebatuta ekarri nauten soldaduetariko batek.

—Ez, ez da egia, ez nengoen inoren zelatan, ihesi baizik —ez dakit zer dela eta antzekorik esan dudana, dagoeneko komedian erabat sartuta ala agian ni ere zentzua galtzen hasi naizelako.

—Norengandik ihesi? —galdetu egin dit bere kokoteraino bakarrik begira ari den jauntxo ezin harroxkoagoz jantzita dagoen gizontzar bizardunak.

Zu bezalako komedianta kaskarregandik esatekotan egon naiz. Baina ez, badaezpada, hau guztia hasi denetik argi daukat euren ofizioa zein seriotan hartzen duen ez dakit nortzuek edo zein erakundek ordaindutako antzesle talde ikaragarri adoretu honek. Ez dut, beraz, inondik ere berriro denon aurrean barregarri utz nazaten. Ez naute erraz jareingo, ez. Txontxongillo gisa behin hartuta hobe dut jokua nolabait jarraitzea, hots, ahal izango dudana modurik arinenean.

—Arrano beltza gidoin dutenengandik —arrapostu egin dut nik ere betoskoa erakutsi nahian— badira urte pila gu denok izorratzen ari direla etengabea. Ni behintzat potroetaraino nengoen eta alde egitea erabaki dut hiriko harresietatik at kanpoko haizea zer-nolakoa zen asmatu zein gozatzearen —azken honi guztiz maltzurra izan nahi duen irrifarre bat gaineratu diot.

—Lagunduko didazu orduan harresiok amiltzen? —nire irrifarrea baino hamaika bider okerragoa den begiratu batez galdetu egin dit berriz Bizkaiko Jaunak.

—Zertan ba? Ni irakasle xume bat naiz, ez dakit ezer gerra jokoetaz -saiatzen naiz nire harrapatzaileen atzaparretatik nola edo hala libratzen.

—Irakasle? Zer irakasten duzu?

—Historia.

—Koplalaria zara, orduan? —Diego Lopez de Haro jauna nire aurpegira so eta adeitsu ere agertu zait lehenbizi.

—Ehhhhhh —hausnarrean egin behar dut ezer erantzun aurretik- Esan liteke baietz, nola edo hala historian oinarritutako koplak kanta eta kontatu ohi ditut.

—Orduan Urraitz hiria oinperatu ahala gure itzelen berri emango duzu lau haizetara denok liluratuko dituen eresi baten bitartez —agindu bide dit orain zeharo abegitsu begiratzen didan handiki harroak.

—Ez da beharrezkoa, denok badakigu historiak dioena, Urraitz setiatu eta gero urtebete erdi pasa egingo da hirikoek men egin arte.

—Urtebete erdi? —Garrasi egin du jauntxo handigurak.

—Bai, urtebete erdi, historiak ezin hobeto azaltzen duen bezala —gaineratzen dut honezkero apurtxo bat gogaituta.

—Ezin dugu hainbeste itxaron, Gaztelako Erregearen tropekin bat egin orduko hiriaren kontra oldartuko gara —Diego Jaunak bere papera ondo baino hobeto bete nahian.

—Ondo bai, zuk zeuk historia zure gogora idatzi nahi baldin baduzu... — ezin ukatu dut, dagoeneko asper-asper eginda nago hau guztiaz.

—Zein zara zu historia aldeztu aurretik idatzita dagoela esateko? Azti bat? —Bizkaiko jaunaren begietan sugarra suma dezaket- Bai, noski, azti bat nafarren aginduz guri begizkoa egitera datorkiguna.

—Eneeeee! —purrust eta guzti egiten dut nire asperra adieraztearren.

—Eta gutxi balitz bezala burla eta guzti egiten diguzu...

—Zer nahi duzue egitea, bestela, oso txarrak zarete, inoiz topatu ditudan anteslerik erdipurdikoenak.

—Eraman ezazue azti zerri hori Zaborra ibai ertzera eta bertan lepoa moztu!

Delako ibairantz nideramaten Diego Lopez de Haroren morroiek galtzarbeetatik oratuta eta ni banengoen ezin sinisterurik komedia honen gehiegikeria norainokoa zen. Nik ez nituen sekula gogoko izan La Fura dels Baus, Le Cirque du Soleil eta enparatuek antolatzen dituzten ikuskizun partizibatikoak edo, beti begitandu zitzaizkidan ikusleak nola edo hala izorratzeko aitzakia bat, ikusleagoak bakan batzuen lepotik barre edo goxa dezan, hau da, zorigaiztoko gutxi batzuen gaineko ixekaren kontura, eta gainera mozkinik jasotzeke. Badidudi oraingoan niri tokatu izana, ezin dut asmatu, ordea, non dagoen grazia, areago, non demontre ote dauden ezinbesteko ikusleak, naramaten alderdian gu baino beste inor ez baitago, batez ere ibai ertzero iritsi aurretik gelditu gareneko ipuru eta otaberaz gainezka dagoen eremu isolatu honetan.

—Jarri belauniko! —agindu egin dit larruzko soinekoaren bularrean haritz bat bordaturik daraman gudamutilak, bultzaka makurtarazi bitartean.

—Aizue, aspertuta nago, broma hau ez zait batere gustatzen, ez dut zuen jokoan parte hartu nahi. Nire aldetik behintzat hau bukatu da, ni banoa —aldarri egin dut.

—Traidore zikina, ahozabal madarikatua, listopasatu nazkante hori —ukabilka zein ostikoka zutitzea galerazi didan gudamutila ia bere onetik at- zure burutik ordainduko duzu gure jaunari burla egin izana!

—Aski da, honek ez du inolako graziarik —oihu egin dut gudamutilak ezpata bere zorrotik ateratzen duela ikusita.

—Ikusiko duzu zer-nolako grazia ederra egingo dio gure jaunari zure buruak, tximatik oratuta eramaterakoan

Honaino iritsi naiz, ez dut inolako asmorik komedia honen txorimalo gaixoa, hostiazorroa, izaten jarraitzeko, dezente egin badut pepelerdoarena gainontzekoek festa zapuztu nahi ez niela uste izan ez zezaten. Oraingoak, berriz, ez du batere zentzurik, hau dena bromatik ofensara aldatu da ziplo eta ezustean, baliteke komedianta aluotariko baten batek errekonozitu izana eta aspaldidanik nire bekatu nazio-ideologiko- en kontura aginduta dudan eskarmentu ederra eman nahi izatea. Ni behintzat ez naiz hemen geratuko sastraka artean zor didaten zigorra edo asmatzearren. Banoa hemendik lehenbailehen, eta baldin bada beharrezkoa bi astapotrootako batek atera eta aurpegi aurrean jarri didan ezpatari, egiazkoa eta guzti ematen duena, aurre egitea, lasai asko egingo diot, oraindik ez baita jaio nire burua inola ere makurtaraziko didan alproja.

—Zoazte biak popatik hartzero! —agurtu ditut nire borrhoroak, ezpatadunaren azpitarte babesgabea ostiko batez bortizki laztandu eta gero.

II

Behin berriro ihesi, lasterka, arnaestuska, erabat nazka eginda eta soro landuetan barrena bueltatu naiz gaurko azokarako propio edota hutsetik, goitik behera altxatuta, antolatuta, atrezotuta begitantzen zaidan hiriko harresiraino. Bertan, harresi ondotik inguru-minguru, ia noraezean, ibili eta gero, Sabandotarrena deritzoten iparraldeko atea topatu dut atzenean. Ezin sinesturik nago ateari egindako itxuraldeketa erabatekoaren aurrean. Bai atrezzo harrigarria egin dutena gezurrezko harresi bat zein erdi puntuko ate erraldoi honen ustezko berreraiketarekin, Sabandotarrenak orduko dotorezia berreskuratu egin duela ematen du. Ikusi besterik ez dago, ate aldeko zurezko mardultasunaz zein zureriaren gaineko burdin sendoen distiraz gain, ateburuan margoturik agertzen den Donejakue armagizonaren irudi gotiko koloreztatua. Badirudi iparraldetik datorren Donejakue bideak hemen gediune entzutetsu duela, ala hori da behintzat gaurko azokaren antolatzaileek sinestarezi nahi digutena, sekula halakorik entzun edo irakurri ez badut ere. Baina tira, edozein txorakeriak balio du gaurko jaialdia nola edo hala kartoizko Erdi aroaz janzteko. Edonola ere, aitortu beharrean nago Ertaroko giroa alde edo molde erdiestearren antolatu duten eszenatokia ikaragarri ondo egin dutela. Egia esan, den-dena behar bezala edota zehatz-mehatz artaturik dago, egiatan orduko garaietan bageunde bezala. Aurrenekoan ohiko Ertaroko azoka faltsu eta traketsari susmoa hartuta baldin banuen, oraingoan, aldiz, zorionak eta guzti eman nahi nizkieke antolatzeileei. Lehen oso gaizki pasatu dut, benetan aztoraturik, harresiaz bestaldean lepoa mozteko planta egin zidaten sasikume armatuen erruz. Alta betiere eta edonon topatzen dira halakoak, jaia behar bezala ulertzen ez duten kaskamotzak, ala jaia gainontzekoen gainean jolas edo broma egitea uste duten astapotroak. Dena dela, aitortu badut, merezi du, noski, egindako lan eskerga ikusita komedia hau guztia aintzat hartzeak.

—Geldi! Nor zaitugu? —atarian zaindari dagoen bi arma-gizonetako batek galdetzen dit.

—Nor nahi duzu izatea? —saiatu naiz ni ere komedian parte hartzen.

—Zer? Txoratuta al zaude arlote zikin horrek! —garrasi egin dit oso modu zakarrez zaindaria. Hasia naiz nazkatzen, benetan, hainbeste garrasi eta mehatxu dela eta.

—Galdetu dizut ea nor edo zer izatea nahi duzun hiribil- duan berriro sartu ahal izateko —erantzun egin diot harro-harro dagoeneko nire betaurre aspertuan errepara dezan behingoz.

—Berriro sartu ahal izateko? —zaindaria, bere lantza luzeari gogor eutsita ere, lehenengo aldiz gogoetatsu begititzen dit- Nongoa zara zu, bada? Zein auzotan bizi zara?

—Zurgineria kalean —arrapostu egin diot jolasean nola edo hala sartu nahian, hau da, nire egiazko heldidearen orde gustukoen, maiteen agian, eta batez ere denbora gehien pasatu dudun kalearen izena esanez, bertan baitadaude nire gaztaroko taberna guzti-guztiak.

—Zurgina al zara? —badirudi gure zaindari prestuak itaunketari eutsi nahi diola kostahala kostahala.

—Nire aita dut kupelgile —erantzun diot komediari arrunt emana, birraitonaren ofizioa gogora ekarriz eta baita nire irakasle izateari oraingo uko ez egitearren ere.

—Zeintzuk dituzu zure izen-abizenak —serio-serio eta bere lantza zorrotza ia kokospean jarriz.

—Iñigo García Olarte —esan dut total samar, nahasi, ez baititut ondo ulertzen joku honen nondik norakoak.

—Orain bai, badakit, Zurgineria kaleko hirugarren auzoteriako eta Done Bikendiren kofadrea den Martín Garzia Olarteko kupelgilearen semea —zaindariak irrifarre egiten du aspaldiko partez, oztopo guztiz desatsegin bat gainditu berri duena bezala-. Zure aita oso ezaguna da auzoan.

—Ez, Iñigo García...

—Goazen ba zure aitaren bila! —agindu egin dit lantzadunak.

Beste behin ere nire hiriko alde zaharreko kaleetan egungo azokarako propio atondutakoari harri eta zur erreparatzen diot. Bagoaz —eskerrak kalea jendez mukurua bete egonda zaindariak lantza puntaren laguntzaz bultzaltzen ez nauen- Zureria kalean gora, eta jendearen garaiko mozorro ikaragarri benetakoez gain —eta txalotzeko modukoa da ere antolatzaileek halako gauzetarako oso emanak edo zaleak ez diren nire auzoak egun Ertaroko soineko, oinetako zein kapelez jantziak kalera irteteko konbentzitu izana- etxeak goitik behera itxuraldaturik begitantzen zait: ohikoa baino txikiagoak, oro har bizpahiru solairutakoak, gehienon aurreneko biak harlanduez osatuta eta gainalde ia guztiak zurezkoak edo zurezko egituren sartutako bistako adreiluzkoak, hauetako asko ere karez estalita. Bistan dago kaleko aurrealde gehienak Alde Zaharrean artean zutik geratzen diren alforja izeneko etxeak erreskadan ugaltzeari ekin diotela Azokako antolatzaileek Ertaroko eitea hainbat zintzoen, zorrotzen, zorionekoen sortu nahian. Eta gutxi balitz bezala ere, badirudi Azoka egunotan kale zein plazetan barrena jarri ohi dituzten txosna edo saltoki traukilen ordean etxeetako bebarruez baliatu direla Ertaroko merkataritza hiri bateko bizigiroa gero eta egiantzekoagoa egitearren. Kalean gora goazela Ollanda dorretxeraren parera iritsi eta honen itzalpean dagoen bebarruko lantegi batera sarrarazten nau nire zaindariak.

—Martin! Martín García de Olarte, hona hemen zure semea aldarrikatzen den arrote bat —oihu egiten dio bizkarrez eta eskuzerraz lan eta lan ari den agure bati.

—AITA!? —oraingoa bai dela zoratzeko modukoa, itzultzen zaidan arotzaren irudia nire aitarena baita, nire aita zahar, tripazorro, kaskasoil eta betiere betoskoduna-. Baina, ze... zer demontre

egiten duzu hemen? Noiztik dituzu gogoko hau bezalako komediak? Nondik atera duzu mozorro hori?

—Hi? Zertara itzuli haiz? Ospa egin huen, gogoratzen? Iruzur egin hidan! —Orain bai ez dudala duda zalantzarik, tupustean nigana oldarka eta bere lantegiko zerrautsa harrotzen datorren gizon asaldatua nire aita erretxina da, ea lehenengo belarrondokoa noiz eta non, hots, gaztetan bezala.

—Zure semea da, ezta? —zaindariaren galdera hutsaren hurrengoa.

—Ez, ez da, dagoeneko ez —ebatzi egin du nire aitakez zuen nire lanbidea gogoko, upelgintza gutxien zuen, eskuz egindako edozein lan. Jakina, ni baino buruargiagoa zela uste zuen, ezin zuen beraz bere bizia nire lantegian alperrikaldu, ikasi nahi zuen. Eta nik amore egin nuen, gustura gainera elizaren eskuetan utzi egin nuelako. Primua zen baina nik banuen beste seme bat, Sabandotarren morroiek garbitu egin zidatena nire jaunaren alde egin zuelako. Orduz geroztik bakarrik nago, oinordekorik gabe, nire orduaren zain —agureak negar eta guzti egin zuen.

—Zure etxera itzuli egin da, baina —azaldu dio zaindariak aspertu tonuz.

—Jakina, seminariotik ihes egin eta gero bilin-boloan ibili delako, noraezean, potrojorran buhameen antzera, jatekoa nola edo non lortzen ez dakiela —nire aitak bota egin du bere onetik at eta niri zorrotz-zorrotz begira-, horrexegatik itzuli da barkazio eske. Baina, oso berandu da, gauza asko gertatu dira, ezin ahaztu direnak, alde egin zuenetik, berak hautatu zuen bere bidea, joan dadila etorritakotik —ebatzi egin du.

—Ondo ba, baina ez baldin badu non bizi edo norekin, ezin da hiri barruan gedatu, berriro kanporatu behar nuke —ohar egiten dio zaindariak nire aitari.

—Niri ez dit ardura, nik aspaldi galdu nuen primua —ezin nuen asmatu hain bihozgogorra zenik, ezin dut sinestu, bere antzesletasuna bezainbeste.

—Goazen ba —zaindariak bere lantzari gogor eta gogotsu eusten dio- hiritik irten behar duzu gaueko etxeratze deia jo baino lehenago.

—Nahikoa da, potroetaraino nago hau guztiaz —orro eta guzti egin dut benetan erresumidurik-falta zitzaidana nire aitak ere komedia honetan parte hartzea. Ze hostia gertatzen ari da? Txoratu egin al gara denok? Ordaindu egin dizute horrela zorrazteko eta bide batez zure adiskide honen laguntzaz adarra jo nahi didazu, ezta?

—Nola ausartzen zara zure aita iraintzera?

Bere zorioneko lantza nazkagarri horrez ni jotzeko imintziorik egiteko aukera izan aurretik, eta bigarren aldiz egun honetan, Ertaroko gerrari baten hankatartea matxuratzen dut ostiko batez. Ezin dut sinestu, ezinean ari naiz Algareria plazako sorginaren edabea hartu nuenez geroztik, baina banago behin berriro kantoï batean gora antxintxika, ez dakit noren edo zeren ihesi, ala bai, dagoeneko amesgaizto bilakatu den azoka egun honetatik, ametsetan bainago, noski, hori baita behingoz ondorioztatu behar dudana soinean daramatzadan jipi zirtzildu zein abarka zatarretan erreparatutakoan; ez da posible, ezin liteke, ni ez naiz gaur goizean nire etxetik mozorraturik, nik gorroto diot mozorratzeari, nik ez nuen inolako gogorik Alde Zaharreko Azokaraino igotzeko, ni ametsetan nago.

Nire ametsotan lasterka noan kantoïaren goialdean beste harresi batekin baten topo egiten dut, ala hobeto esanda, baita ene garaian ere, hots, errealtatean, itzarrian, eta inondik ere ez dakusadan Mitarte-Arana jauregi errenazentistaren ondoan zutik zegoen burdin hesi erraldoiarekin. Antza denez, bigarren barne harresi honek hiria altxatzen den muinoa inguratzen du, hau da, nafarrek Urraitz izeneko herriskaren gainean sortutako jatorrizko hiribildua, bertan ere Jasokundeko Andre Mariaren eliza-gotorlekua zein Done Bikendi gaztelua daude, goialdeko eraikinik garrantzitsuenak, Alfonso V.ren gaztelauen erasoari aurre egin ziotenak, harik eta Nafarroako erregeak, setio ikaragarri luze eta latz baten ondoren eta atzerrian mairuekin harremanetan zegoenez gero, defentzaileei amore emateko baimena eman zien arte. Badaude ere harresiko atari ondoan beste bi zaindari niri begira hasi direnak, eurengana arrapaladan iritsi naiz-eta. Beldurrak nago, ordea, nire atzetik biraoka eta lantza luze ta zorrotzez mehatxuka zetorren kideak harrapatatuko nauen bion laguntzaz. Gauzak horrela, ezin aurrera edo atzera eginik, tupustean aldameneko etxe baten hormara igo eta salto egin dut bestaldera. Harresi ondoko baratzetan amildu naiz. Ez dakit oso ondo norantz, baina ez dut inolako erraparorik mota guztietako barazkiak zapaltzeko nire ihesi zoroan. Baliteke, menturaz, halako batean ortulariren batekin buruz buru egitea eta berarekin sesioa izatea. Azkartu behar dut, beraz, edozein oztopo edo ezusteko baztertzearren. Ez naiz konturatu, ordea, barne harresiaren ondotik zehar korrika zein saltoka noala, atarian zeuden bi zaindariak nire parean korrika ere datozela harresiaren goiko almenabidetik. Espero dut ezetz, ez dut merezi, lehenengo zaindariak polito izendatu bezala arlote huts bat naiz-eta, baina agidanez haiek ez dute berdin uste, arriskutsu naute, ez dakit zeren susmagarri, horregatik biotako batek nire belarria ozta-ozta jo didan lantza motz bat jaurti egin du. Ikaraturik nago, prakak bustitzear. Ametsetan edo ez dut inolako minik hartu nahi, badaezpada. Esnatu beharrean nago ala bestela nireak egingo du. Ezinezkoa, Jaungoiko edo dena-delakoari arrenka eginda ere ez dago modurik, amesgaiztoaren sakonenean murgildurik nago bortxaz. Harresiaren goikoan, aldiz, beste zaindari arkudun bat azaldu dira, aurrera egiten jarraitu ezkerreko geziez josiko nau. Lur jota nago, alabaina, nazkatuta, dagoeneko denak bost axola dit, beraz belauniko eta beso zabalik jartzen naiz: hemen nauzue, buka dadila lehenbailehen.

—Aizu, sar zaitetz barrura, azkar!

Ez nau nire amesgaiztotik atera, bere etxeko ortutik baino sukaldean babes nendin. Bizar urdin luzeko agure mirrizka eta konkorrak gogor eusten dio bere etxeko ortua lantzen duen igitaia. Badaezpada, nire jarraitzaileengatik askatu eta agian babestu ere egin arren, ezin jakin du nor sartu duen bere etxean. Agurearen erkintasun agerikoak, horregatio, ez dit inolako beldurrik ematen, igitaiaz eta guzti. Horregatik nire burua albait arinen aurkeztu nahi nioke, batere arriskutsua ez naizela erakutsitakoan nola edo hala behingoan lasai dadin.

—Zer dela eta astapotro horiek zure atzetik zenituela? —galde egiten dit.

—Beraiei galdetu, hiritik bota nahi ninduten eta —asmatu dut, ez dakidala zehatz-mahatz egiatan komeni zaidana esatea.

—Lapurra al zara? —esan eta igitaia nire sudurraren pareraino altxatu egin du.

—Ez, inondik ez —eta ezbaian geratu naiz lipar batez- Martin García de Olarte kupelgilearen semea naiz.

—Ene! Orain dena ulertzen dut —agureak igitaia jaitsi eta atoan bere musu hezurtsu eta zimurtuan irribarre luze bat marraztu du- lehen zure anaia akabatu eta orain zu ere gogoan omen zuten.

—Bai horixe! —honezkero erabaki badut amesgaizto bukaezin honen nondik norakoei men egitea halabeharrez.

—Ezin duzu asmatu zer nolako zorte handia izan duzun gure ortuan jausterakoan, Paterninatarren oinetzekoan —bat-batean agurea harro-harro jarri da-, hemen segur zaude.

—Zu al zara etxearen jabea —galdetu diot guztiz sinesgogor.

—Bai zera! —sudurra zimurtu du- Ez niri adarrik jo! Badakizu ondo baino hobeto morroi apal bat naizela.

—Ez, nik ez dakit... —esan dut aiko-maiko.

—Mundu guztiak ezagun du Paternina jauna, herrialdeko jabe handienetarikoa, hiriko jaun prestu guztien buruzagia, hiriko alkatea hamaika aldiz izandakoa, urtetan gure Erregearen zerbitzupuan egondakoa, gizon ikaragarri buruargi eta ikasia —agurea ezin morroiago bere jaunaren dohainekiko.

—Sentitzen dut, baina... —ametsetan egonda ere egia beti premiazkoa.

—Oraintxe bertan eroango zaitut nire jaunaren aurrera.

Ba ez da egia, en ninduen bere jaunaren aurrera eraman, bere zain baino. Bagaude etxearen atarian, motibo geometrikoak eginez eta bi kolore-tonu nahastuz harri txiki lauez egindako zoruaren gainean, bigarren soilairuraino daramaten eskaileren aldamenean, Paternina jauna haren hiri inguruko lur jabegoetan egin ohi duen osteratik noiz bueltatuko. Agureak etxeke jabearen aurrean nola jokatu behar dudan irakasten dit; beharko, hain gazte eta oies ematen dut-eta.

—Zuk burua makurtu, nik hitz egingo diot berak zurea eskatu arte.

Bere jaunarekiko jokabideaz ez ezik, Paterninarren kondairaz ere hitz eta pitz ari da zer-nolako leinu ohoretsu eta garrantzitsua den behar bezala jabetzarren.

—Nire jauna hiriko jaun handiena da, Aialako Jaun txit gorenaren senitarteko, hori dela eta gorroto ikaragarria dioten hainbat eta hainbatek —azaldu dit agureak ezin harroago.

—Nik ez dut ezer egin, ez dakit zer dela eta nire atzetik zetozen armagizonok —desenkusatzen saiatzen naiz, agure morroi honek benetan koipeztoa edo irensgaitza ote den saltsa batetan sartu nahi nauelakoan-.

—Baina haiek zure anaia garbitu zuten —moztu dit agureak betozko-betozko- gutarren alde egiteagatik...

—Haiek? Gutarrak? —hasia naiz berriro nekatzen amesgaizto honen nondik norakoez-.

—Bai, mutil, kantoitarrak, hiriko kantoietan biltzen diren sasikumeak gure jaunen kontrako azpilanean ibiltzarren —agureak azaldu zidan zeharo sumindurik-, udaletxeko eserleku zein karguak herrialdeko jaunei uko egin nahi dizkietenak, jendaila: odol zikineko merkatari, artisau edo nekazari aberastu berriak, judugasteak...

—Nire ezpalakoen modura hain zuzen ere —bota egin diot erronkari.

—Zure ezpalekoek betiere men egin zioten bai beren oinerrian, bai hiri honetan, babes eman zien jauntxoari, Ollanda dorreko Iñigo Velez Gebarako —argitu dit agureak hitzak banan-banan ahoskatzen umemoko bati zuzendu balitzaio bezala.

—Egia esan, nik ez dut sekula egin nire aitak agindua zidana —barre eta guzti egin dut agurearen haserrera- Esan liteke etxekalte galanta eginda nagoela.

—Orduan ez duzu nire jaunaren babesaren beharrik —ohartarazi dit atondoko egurrezko atetzarreen dinbi-danna joka ari zirela, antza denez nire arestiko jarratzaileen lantza edota ezpaten languntzaz.

—Ba ez, ez dut amesgaizto honen beharrik, laster esnatuko naiz-eta —azken hau esanda zeramikazko lauzez estalitako eskaileretan gora egin dut arrapaladan, forjatuzko baranda dotoreari eutsiz harmailak binaka igotzearren.

Goiko atondora iritsi eta bi neskame alde hemendik, lapurra! oihuka datozkidala dakusat. Ez dut inolako gogorik haiekin eztabaidaka hasteko, beraz, eskura dudan aurreneko atea zabaldu eta gela zabal batera sartzen naiz ustekabeen. Antza denez etxeko gela nagusia da, motibo geometriko eta pasaia adierazten dituzten horma-pintura sinpleez hornituta, zoruko lauza lau ia guztiak, ordea, tapizez estalita, sabaiko adreiluzko ganga trenkatu luzangak erdian duen idibegitik datorkio argia. Egongela erdian, aldiz, Penelope ospetsuaren modura ehuntzen ziharduten hiru emakumezko ni ikusi orduko kanape dotore batzuetatik zutitu egin dira ziplo.

—Jainkoarren, ez egiguzu minik! —erregutu egin dit soinekorik landu edo apainena jantzi eta euren bularren irmotasunez edo babesten duten bi neskameak baino guztiz txairoagoa ematen duen andere biziki ederrak. —hartzazu nire eraztuna, urregorritzko lepokoa eta nahi adina harribitxi edo, baina faborez, errespetatu!

—Baina, zer arraio dio maripertxenta honek? Nor mindu behar dut nik, zergatik? Errespetatu? —orain bai nagoela benetan txunditurik, zer egin edo non nagoen ez dakidala, eta artean eskaileretan gora iristen ari den agurearen mehatxuak etxera sartzen utzi dituen armagizonen zapaltze hotsekin batera.

—Harrapatzazue gaizkile hori, Paternina jaunaren emazteari eraso egin dio-eta! —salatzen dit agure madarikatuak aizunez.

—Ireki ezazue balkoia, oraintxe bertan, goazen! —oihu egin die beldurrak zeharo jota dauden bi neskamei fatxadako balkoi irtena babesten duen forjatuzko burdin hesia ahalik lasterren zabal diezadaten.

Uste baino arinago suspertutako bi eskameok nire agindua bete bezain laster balkoira irten naiz, barandaz bestalderaino igaro, barrotei eutsi eta une luze batez zintzilik eta kulunka egon ostean kalera salto egin dut itsu-itsuka. Ez dut uste beharrezkoa denik azpimarratzea lurretik kilin-kalan altxatutakoan, osorik nengoela egiaztatu orduko, behin berriro kale-kantoietan behera korrika egin dudana. Oraingoan hiri-bilduaren beheko harresien ondoan dagoen Done Paulo eliza dut helburu, Ertaroan eskeintzen zuten asilo sakratua, ukiezina, zela gogoratu berri baitut, alafede. Esanak esan, eta kontuan hartuta ere elizara zuzen-zuzen daraman Bakardade kantoian beherantz zitzu bizian noala, elizaurrean eskean zeuden behartsu, elbarri, kinkilari edota dena-delakoengan erreparatzeke, eliza barruan sartu naiz tupustean.

—Ene patroï jauna, nire jarratzaileengandik anpara nazazu! —oihu egin dut, hor nonbait irakurri nuenez, hau da, aldareko Done Pauloren irudiaren aurrean belauniko eta beso zabalik.

—Nortzuk dituzu zure jarraitzaileak —itaundu dit aldare ondoan erdi ezkutaturik zegoen abade gazte batek.

—Horrek inporta al du? Nik uste Eliza denok babestu beharrean zegoela bere barrenean — arrapostu egin diot nire ironia zein nekea adierazi nahi dituen irribarre oker batez, dagoeneko ez baitakit noraino merezi duen ametsezko komedia honi benetan eustek ala dena popatik hartzera bidaltzeak lehenbailehen itzartzeko asmoz.

—Paternina Jauregiko andrea garbitzen saiatu den morroia da —azaldu du elizatek zetorren ahots batek.

—Ez, hori ezta egia, hiriko zaindaria nire atzetik zebiltzan eta orduan jauregi horretan sartu nintzen ezustean, baina nik ez... —zer dela eta hainbeste zuribide, hau guztia ezta erreal, amesgaizto bat baino ez, eta ni txoratzten ari naiz.

—Theresa Ramírez de Arellano andrea akatu nahi zenuen? —oraingoan abade gaztearen erkina ia betartean sartuta dut, ez baldin banaiz behingoan lasaitzen, halako batean koska eta guzti egingo diot bere hatz salatari horri.

—Ezetz, esan badiot berorri ihesi ari nintzela...

—Gure Jaunak ezingo dizu inondik ere leporatu jauntxo baten emazte bekatoreak ondo merezitako zigorra ematen saiatu izana —bota egin dit abadeak inoiz sumatu ez dudana begiraturik betilunenaz-. Aitzitik, zaude ziur, seme, Jainkoak berak zure eskua nola edo hala zuzendu egin zuela. Tamalez, badirudi gure Jaun Zerukoaren asmoa oso bestelakoa zela, agian proba bat besterik ez.

—Edonola ere, armagizonak zain ditut eliza kanpoan —gogoratu egin diot gupida kristauaren kontzeptu nahiko bitxia duen Jainkoaren morroi honi-, horregatik nator babes eske, Elizaren legea bete dadin.

—Noski, Elizarenak eta baita kantoiko jende xehe eta zintzoarenak ere —azaldu dit abade gazteak-. Elizpean izango duzu non lo egin eta jateko nork emango.

Bart eliza aurreko zoruan etzanda lo egin dut hamaika eskalerekin batera eta atariko irudi gotiko polikromatikoen babespean, irakurrita nuen Penintsulako elizperik entzutetsuetarikoa zela, baliteke, egia esan ez ditut nire hiriko historia eta arte ondareak oso aintzakotzat hartzen, bertan daude eta kitto, ez da nire hirikideen ohitura ere, halako gauzetan atzerrira joaten garenean bakarrik erreparatu ohi dugu; baina ezin nuen inoiz irudikatu nire ametsotan agertzen den bezain galanta eta batez ere txukun margotua, arrunt txunditurik nago.

—Hor kanpoan zain dituzu zure lagunak.

Egia da nire aldamenen etzanda dagoen mozkorak irrifarre zanal batez esandakoa. Elizpeaz bestaldean atzo honaino segika nituen armagizonak ea noiz irtengo naizen esperoan daudela. Hiriko zaindarien egoskorkeriak zinez harritzen nau, halabeharrez; arlote simple bat naiz, elizaurrean pilatutakoak bezainbat. Tamalez, erabat esnatu orduko halako setakeriaren egiazko zioaz konturatzen naiz: Theresa Ramírez de Arellano andere handikiaren erasotzailea naute. Ez didate erraz barkatuko, ez behintzat bere senarra hiriko jauntxorik handiena baldin bada, Paternina jauretxeko agureak ondo baino hobeto azaldu bezala. Hiriko alkate ohia, Probintziako idazkari ohia, Gaztelako erregearen ez dakit zer kargu ohi, ahaide nagusietakoa..., ez dut dudarik morroiok hain jaun handi eta boteratsuari nola edo hala atsegin egiten saiatuko direla. Baliteke ere Paternina jaunak nire burua sarriean jarri izana, hiriko gaizkilerik presiatuena bilakatuta.

—Zoaz, zoaz kanpora, zure lagunok laster larrutuko zaituzte goitik behera —trufa egiten dit orain nire inguruan tximinoarena egiten ari den mozkor nazkagarriak.

Ez da, ez, aterpekide dudan jendilajea oso atsegina. Nabarmen da hain etorkizun larrurik gabekoa igartzen didan mozkorra batere gustukoa ez zaidala, berarekin burrukan hasteko aiko-maiko nagoela, hain emangaitza begitantzen zait-eta.

Alabaina, gainontzekoak ere ez dira makalak, gizajoak; mozkorra egosten ari ez dena elizaurrean barna herrestan darama ozen-ozen, herrena ala besamotza ez dena legenak jota dago edota, baten batek zer gaitzek jota, aieneka eta ia hiltorian ematen dute begiko, edo errukiko hobeto esanda, zaizkidan bakarrak elizpeko emakume eta haur zurtzak. Ez da harritzekoa haiek bezain zurt sentitzen naiz-eta amesgaizto honen erruz, ez dakidala noiz esnatuko eta ez egin bitartean zein arrisku edo erronkari aurre egin behar izango diot ametsetan behintzat bizirik edo salbu irautearren. Dena dela, eta elizpeko hotzak zein hezeak, ateriko irudi sakroen itzal urdurigarriek edota lagunarte xeble honen ikuskizun penagarriak eraginda, sekula baino zurtzago sentitzen naiz, ametsetan ala esna. Ez dakit nola iritsi naizen honaino, hau da, nola eta zergatik sortu den huts-hutsetik amesgaizto amaigabeko hau, betiere baitago zer edo zer ametsak eragiten dituena, Freud dixit. Orain arte bizitutakoari erreparatzen baldin badiot ez naiz gauza inolako ondoriorik ateratzeko. Galduta nago, mehatxatuta, nirea den hiri batean baina inola ere ez dagokidan garai urrun eta ilun batean, behin baino gehiagotan nire historia ikasketetan edo fakultateko eskoletan jorratu egin dudana, baina hala eta guztiz ere, Aro Berriaren zale eta aditua naizen aldetik, neurri handi batean guztiz arrotza zaidana. Bestalde, lokartu edo naizenetik ihesi nago ametsetan, horrek zer edo zer adierazi nahi du nahietaz. Baina zer, zeren ihesi ari naiz bene-benetan. Azokara sartu orduko galdu ditudan adiskideengandik, inoiz askotxo estimatu ez ditudan nire hirikideengandik, nire ikasketei zein bizimoduari beti muzin egin zien aitarengandik, beti barregarri zein arbuigarri begitandu zaidan estamenduzko gizarte batetik, nire bizitza bereiztu duen ausardia falta nabarmenetik. Auskako, zeretik eta zergatik ihesi nabil. Oraingoz nahikoa dut larrua haragiari atxikita gortzearekin. Badaezpada, ezin baitut asmatu gaurgero zer suertatuko zaidan. Esaterako, zertara datozen orain bi abadeok, gaztea eta eliza barruan nengoela salatu egin zidana.

—Alde hemendik, mozkor zikina —aldarri egiten dio abade gazteak nire mozkor zirikatzaileari, besteak lepotik oratu bitartean- hau ez da bizio etxea, Gure Jaunarena baino.

Nire aterpetik ikus dezaket bi abadeek kalera botatako mozkorra nire jarratzaileen eskuetan, goitik behera arakatuz Theresa Ramírez de Arellano andere sotilari eraso egindako gaizkilearen bila, eta ni ez naizela egiaztatutakoan jipoi ederra ematen diotela zeharo amorratuak.

—Hator gurekin, Iñigo —agindu egin dit abade gazteak nire izena asmatuta- gogotik ezagutu nahi zaituzten pertsona ohargarri batzuk zain dituzu-eta.

Abadeak eliza barrenera narama, koruaren ondoko kapera batera pasarazi eta bertan hiriko jaun famatu eta txit prestu baten hilobiaren ondoan nire zain edo dauden gizon betilun batzuekin topo egiten dut.

—Aizu, Iñigo, gizonok aurkeztu nahi dizkizut: Juan de Ganboa, Espartineria kaleko alkate txikia, Martin de Anda Petrineria kalekoa, Juan de Arana Ganibeteriakoa, Luis de Mendoza Tintoreriakoa, Cristobal de Mendiola Erremenderiakoa, Alonso Zaldibar Barrenkaleko auzoko nekazari zein jaun txikien burua eta azken hau nire anaia Juan de Salvatierra, hiriko lau alkate nagusietako bat.

Txunditurik eta piska bat kokildurik ere nago hainbeste jaun ohoretsu eta harro artean; ni, ametsetan hasi nintzenez geroztik han hemenka etengabe ihesian ibili den arlotea. Ezin dut inondik ere asmatu zertarako erakarri nauten euren aurreraino. Baina badakit ezin nekagarriagoa egingo zaidala nire etxeko auzo ohoretsu eta harroen bilkura guztiak antzera egin ohi zaizkidan aldetik.

—Eskertu nahi dizugu kantoiko jendearen izenean gure kausaren alde egin duzuna —abadearen anaiak hitza hartu du-.

—Barkatu? —zeharo txunditurik.

—Bai jauna, ez izan hain apala, gaur hiriaren gobernuaren jaun eta jabe izan nahi duen Paternina malapartatu horri ohar garrantzitsu bat eman diozu...

—Ohar bat? —ez dakit zertaz harritzen naizen behin berriro deus ere ez ulertzeagatik, ametsen funtsa edo mania horixe baita: zentzugabekeria.

—Jakina baietz, ez izan dudarik gure jauntxo madarikatuak ondo baino hobeto aditu duenik: hiriko jaun aberats eta boteretsuena izanda, hiriko artesau txiki eta apal guztiak zein eskualdeko oinaztar ahaide guztiak bere alde izanda ere, gure kontra jardunean ekin aurretik kontu handiz ibili behar dela halanbeharrez, ez baikara erraz makurtuko bere mehatxuetara aurreneko kolpea eman barik —azaldu dit ikaragarri polito hiriko lau alkate nagusietako bat den eta hiriko ofizio guztien ordezkarien izenez edo hitz egiten duen Juan de Salvatierra jaunak.

—Baina, hori ez da izan nire asmoa Theresa delako horren egongelan sartu nintzenean... — badakit ez duela zentzu handirik aitzaki-maitzaki ibiltzeak ametsetan ari naizenez, baina hala eta guztiz ere ezin diot eutsi gizon honen argudio zoroari, nolabait gaizkile ez ezik, gizon odolgoose hauen konplize ere bihurtzen gaituena nahitaez.

—Begira, Iñigo, guri ez zaigu batere inporta Arellano andreari eraso egiteko zenituen motiboak, berdin digu hiriaren libertadearen izenean akabatu nahi zenuen ala amodio aferan huts batek eraginda edo dena-delakoak; zure mendekuaren hartzailea gure etsaia ere zen, beraz, gure alderdiaren alde egin duzu halanbeharrez, honezkero guk behintzat lagun zaitugu —adierazi gin dit nire abade babeslearen anaiak bere ezpainetan guztiz gauzatu ez den irribarre batez.

—Ni ez naiz hiltzaile —bota egin diet tupustean jaun betozko guztioi zeharo atsekabeturik.

—Jakina ezetz, zu libertadearen kausaren heroi bat zara —oraingoan argitu dit abadeak, hiriko tiranorik handienari aurre egin dion bakanetakoa, horregatik miresten zaitugu, horregatik eta baita zure aitaren etxea utzi ere behar izan duzulako libre izatearren.

—Libre izatearren?

—Bai, jauna, zure leinukoek Paternina Etxearekiko dituzten zeharkako morrontza loturak arriskutan jarritz —ezin ditut oso ondo asmatu abadearen nondik norakoak, baia ez dut duda izpirik azpilan kiratsa dariolik-. Badakizu Ollanda dorreko jauna, zure aitaren patroia oinaztarra dela, Paterninako Jaunaren lehengusua dela hain zuzen ere.

—Eta? —galdetzen dut benetan nazkaturik hain ezagun, gertuko eta batez ere mingarri zaidan alderdikeria honekin.

—Ba, ez dut uste Ollanda dorreko Iñigo Velez de Gebarak zure aitari barkatuko dionik egindako traizioa —agintzen dit abadeak guztiz amultsu- Jauntxo haizeputz aluok ondo baino hobeto ezagutzen ditugu-eta, ez ahaztu zure aitaren antzera gure arbasoak ere eskualdeko herri txikietatik iritsi zirenik hiri honetara.

—Zer ikusi du nire aitak nik egindakoarekin —galdera benetan inozoa nik bezalako historialari batentzat, leinuaren legeaz ari gara eta, nire ekintzen ondorioak leinu guztiarenak baitira, ez bakarrik nireak.

—Gebarak bere lehengusu Paterninakoari ordaindu behar izango dio derrigorrez bere morroi batek egindako kaltea —Salvatierra abadeak esan dit serio-serio-.

—Eta zer nahi duzue nik egitea —galdetu egin diet, dagoeneko zeharo abaildurik.

—Patertinako Jauna eta bere alderdikoei min gehien egin diezaiekeena —ikustekoa da Salviatierra anaien begietan bat-batean eztanda egin duen distira mendekosa-, euren diru iturria ziplo, errotik, lehortuko duena.

—Zer jukutria mota duzue gogoan? —galdetu diet dagoeneko guzti ezaxola.

—Ederto asmatu duzu, Iñigo, bete-betea —denok barre algaretan lehertu dira ustekabez- Juderia kaleko Jakob Gaon sendagilea akabatu behar duzu, gure etsaien mailegu emaile nagusia, Paterninatarrak oso ospe handiko jaunak omen dira, lur eta dohain askoren jabeak, baina ez dute ia inoiz esku dirurik udal karguak edota hiriko artesau zein nezakari apalen borondateak erosterakoan, horrenbestez juduarengana jo ohi dute beti diru eske.

Ez dakit zertaz harritzen naizen, zer dela eta haserretzen naizen hiltzailatzat hartzen nautelako. Txotxongilo naute eta nola edo hala erabili nahi euren helburu maltzurretarako. Esan ahal izan diet ezetz, ez dudala inola ere parte hartu nahi eure azpijoko odoltsuetan, berdin didala ni elizatik botata izateak eta nire jarratzaile armatuen eskuetan jartzeak. Badakit noiz edo noiz esnatuko naizela amesgaizto honetatik, libratuko naizela edonoren eskuetatik egiazko arriskutan, hiltzorian, egotekotan, baliteke burugabekeria guzti honi planto egin orduko. Hala ere, ez dut tutik ere esan, banago jakinminak benetan akuilaturik eta asmatu nahi nuke amesgaizto honek asmotan duena, ez dela izango, ez, ezer onik, atseginik, ziur nago, ikarazko pelikularik kazkarrenean bezala. Artean, kantoiko jendilajearen berbaroari adi-adi nengoela kaperaren bazter batetik, kanpoan arras gautu da. Orduantxe Salviatierra anaiek eta enparatuek kalera atera naute isil-gordeka Salviatierraren arbaso ospetsu baten hilobia dagoen kaperako ataka batetik. Banoa berriz, bagoaz denok, Bakardade kantoian gorantz, ilunpetik eta kapa banaz estalita badaezpada. Badakigu, Juan de Salviatierra jaunak hala gaztigatu digulako, udalbatzaren agindupeko armagizonekin topo egiteko arriskutan gaudela, hau da, Paternina jautxoaren soldatapekoekin. Ez digu komeni, kantoikooi, udaleko zaindariekin liskarretan ibiltzeak; hiriaren agintearen kontra jardutea ez litzateke batere egokia gogoan ditugun udal karguak aldarrikatzerakoan. Hori dela eta, nire alderdikideok Dona Maria kantoiaeren behealdeko ertzeraino laguntzen naute bakar-bakarrik.

—Done Peru kalean hamaika taberna dituzu zer edo zer edateko ondoko Juderiakoan adoretu sartu baino lehen —aholkatu dit Salviatierra anaia handiak- bertan ere gau erdira arte zain egon ahal izango zara judu madarikatu hori bere mediku bisitetatik etxera bueltatu arte. Zorte ona izan!

Eskuetan aizto luze eta zorrotz bat ipini didate. Aiztoa kapa azpian ezkututa sartzen naiz Done Peru kale zabal eta zenbait zuziz ondo argitua Juderia mehar eta ilunarekin bat egiterakoan apur-apurka estutzen den kale bazterreko taberna batean sartu naiz ametsetan izanda eta guzti benetan ezinbesteko zaidan tragu bat hartzearren. Ezin ukatu Erdi Aroko ardo maila dastatzeko aukerak Kantoiko jaunek nire bizkar gainean jarritako betekizun astunari eutsi baino lehenago nolabait, lipar batez gutxienez, ahanztarren aukera paregabekoa eskeintzen didanik. Baliteke

nire alderkide berrien egitamu konspiratzaileari muzin egitea eta egundoko atxurra harrapatzea egunabarrera arte. Ez litzateke oso ideia makala amesgaizto honen zentzugabekeria erabatekoa kontuan hartuta, honek guztiak ez baitu buru-buztanik, laster esanatuko naiz ezinbestez. Bien bitartean, eta tabernariari eskatutako ardo pitxer betea jaso orduko, nire buruari gogoratu behar diot zurrut artean ni ez naizela inola ere hiltzaile bat, ez dudala inor garbituko. Jakina, zoratu al naiz? Niri Kantoiko jaunen arazoek bost axola didate, ni ez naiz Martin Garcia de Olarteren semea, ni ez naiz hemengoa, eta gutxi bailitzan, ni ez naiz ere garai honen zalea.

—NI XXI MENDEKO HISTORIA IRAKASLE BAT NAIZ!

Ozen-ozen garrasi egin dut enegarren zurrutaz gero txiriboga honetako begiratu guztiak nigan bilduz. Orain arte tabernan ilundu osteko bakardade erdiragarria bustitzeko asmoz zein hiriko zaindarien zelatatik ihesi sartzan zen arlote arrotz bat nintzen; behingoan, ordea, gehientzat interesgarri bilakatu naiz, agian susmagarri ere bai.

—Nor zara zu? —galdetu dit supituan nire aldamenean eseri berri den mutiko zarpailtsu eta erdi mozkor batek, lekua, ordua eta batez ere janzkera labaina zein orrazkera arranditsua kontuan hartuta urdanga hutsa ematen duen neskato batekin batera.

—Zuri zer axola? —erantzun diot erronkari, ez ahaztu kapa azpian aizto zorrotz bat daroadanik.

—Niri bat ere ez, baina zuri bai, uste baino gehiago —jakinarazten dit mozkorrak- ziur bainaiz zu ez zarela bertakoa, ez zaudela bertan auzotaturik, ezagutzen ez zaitugu-eta.

—Eta? —benetan atsekabeturik.

—Komeni zaizula zure ardoa gurekin partekatzea —horra hor agure kakalardo honen aholku zekena- ez baldin baduzu hiriko zaindarien kaleetan barrena harresiko ateraino narrasean eraman kanporta bota zaitzaten.

—Ondo ba —dagoeneko ez dut uste egon litekeenik konpainia hoberenik- beste pitxer bat ardo eskatuko dut.

—Horixe! Banekien nik ez zinela artole xehe bat —agureak keinu eta guzti egiten dit.

—Nor nauzu, ba? —galdetzen diot agure nonzeberri honi enegarren zurrutean murgildu aurretik.

—Jaun bat, ezkutuan dabilen jaunskila bat ez dakit zer azpikeria gogoan duena —esan dit serioski- Zer daroazu soinekoaren azpian?

—Zuri batere ardura ez zaizun ezer —antza denez ez dago konpontzekorik jendaila honekin, noiz edo noiz errieta sortu behar dela nahitaez-.

—Jakina ezetz, baina espero dut behintzat sosak gordetzen dituzun poltsa izatea —agure honen jukutria bai dela txalotzeko modukoa, egia esan gero eta begikoago egiten ari zait, ez dakit nondik aterako dudan ardoa ordaintzekoa, nik uste baina parranda ederra egingo dugu elkarrekin.

—Tira ba, lehen edan dezagun, gero gerokoa —eta honekin batera tabernariak eskatutako hirugarren pitxer ardoa lagatzen digu mahai gainean, lehen baino uzkurrago, nire oraingo bi mahakideak batere gustukoak ez balitu bezela, eta ez da harritzekoa aldamenean dudanak ez baitu oso betetzen emakumezko bati eskatzen zaion lotsaizun legea.

—ENE! —garrasi egin dut ezustean- geldi egon, mari-purtzi halako hori!

—Zure hankarteko hori ez da haragizkoa, burdinazkoa baino —bota egiten du urdangak zeharo txunditurik.

—Galtzairuzkoa da, aizto gogor eta zorrotz bat zuek bezalako bi txerrikumeren zintzurra dzi-dza ebakitzeko modukoa —koitaduek ez dakite noraino gertu nagoen nire mehatxua betetzearren, ametsetan nagoela benetako ezer txarrik gerta ez dakidakeela pentsatzen hasia naiz eta, halabeharrez.

—Ez nauzu gustuko, maritxu halakoa? —keinu egiten dio neskatoak bere lagun adintsuari-.

—Ezta hori, oso neska pertxenta zara —gezur egiten dut neskatoaren hortz belztuei, ile-txima ugerdoari edota bere gorputz erkina nola edo hala estaltzen duen soineko zarpail eta zikinari darion kiratsari erreparatu eta gero-, erne ibili beharrean nago gaur gauean hiriko oso agindu garrantzitsu bat bete behar dudalako.

—Ah, bai? Eta jakin al liteke zein den agindu garrantzitsu hori? —galdetu dit agureak iseka begiratu batez.

—Jakina ezetz, zer dela eta fidatu behar nintzateke zuek biok bezalako gizajo alfer batzuekin — ez dakit ardoak eraginda edo, baina nik ordua uste iritsi badela nire amesgaizto honetako zentzugabekeriari aurre egiteko, nola?, bertan bete-betean murgilduz-, ziur nago zuek biok nire aizto zorrotz honen laguntzaz bertan garbitu ezkeror inori axola izango ez zaiola. Izan ere, nire begien aurretik behingoz gal zaitezten modurik eraginkorrena delakoan nago.

—Lasai zaitetz, jaun misteriotsu hori —agureak barre egiten du-, baliteke gure laguntza behar izatea, gu kalean bizi gara eta, bai hiri barrenean, bai errebaletan.

—Zertarako ba? —altxatzen dut nire edalontzia agurearen begien pareraino.

—Esaterako, zaindarien joan-etorriei adi egoteko edo zure agindu horren jasotzailea erraz topatzeko, guk biok ondo baino hobeto ezagutzen baititugu hiri honetako biztanleen ohiturak.

—Zer dela eta? —galdetu diot benetan txunditurik.

—Hiri honetako biztanle arrunt fededun eta errukiorrek premiazko gaituzte eskale gisa karitatearen legearekin behar bezala eta ia egunero betetzearren; nor hobeto agure bat edota emagaldurik bat baino? —agurearen irribarre gaiztoa ezin da zabalagorik izan.

—Noski, nik ere behar zaituztet orain gaubelean ondo baino hobeto egoteko. Topa egin dezagun! —berdin dit bi arloteok ni mozkor-mozkor eginda zerraldo erorita lapurretan egiten didaten ala maripurtzil horrekin txortan egin eta gero potrozorriak edo harrapatzen ditudan. Aitortu ere behar dut bi arloteokin, ordea, Done Paulo Elizako jauntxoekin baino gusturago sentitzen naizela, hau da, nire alderdikideekin bainoago. Baina, ez naiz harritzen osoro, nire bizi ia osoan antzekoa izan baita nire ustezko alderdikideekin gainontzeko jende askorekin baino gaizkiago konpontzen nintzela, nirekiko ezinikusi zein azpikeria guzti guztiak nire ustezko alderdikideen partetik zetozela, gehienek ezin baitzituzten pairatu euren harrizko iritzi edo printzipio aldaezinen aurrean aiko-maikoetan ibiltzen ginen koitaduok, eta nik uste ezbaia izan dela nire ikurra mundura etorri nintzenetik.

—Esadazu, jaun mozkor horrek, ez baldin bada atrebentziarik, zinez ez dela, irabazpide baino, nor duzu garbitu beharrekoa —bat-batean agureari begitartea zeharo ilundu zaio-.

—Zer ba?

—Agindu dizute gizabanako bat akaba dezazun, baina zure lagunok beste batekin edo nahastu zaituzte, ezin dira okerrago egon, zu ez zara hemengoa —ikaragarria agure honen zolitasuna, ni behintzat ikaratzan hasia naiz-. Esadazu ba hiltzeko agindu dizuten kristauaren izena eta nik seinalatuko dizut kalean gaudela.

—Ez al da Jakob Gaon judua izango? —asmatu du gero eta arlote ezinezkoago begitantzen zaidan agureak.

Hiru pitxer ardoz gero, zurrutetan zein irri-karkailetan agurearen etengabeko galdera ia guztiei iseka, purrust edo muzin eginez, edota ematxarraren mahai azpiko lastan lizunekin gero eta gusturago, beroago, handik tabernariaren atzetik ezkutupean eta arin-arinka ospa egiteko proposatu eta kale gorrira irten ginen.

—Erakutsiko didazue judu horren etxebizitza eta gero alde egingo duzue ni bertan zelatan utzita —agindu egin diet nire bi mozkorkideei.

—Ondo ba —onetsi dit agureak-, baina, esaguzu, nola ordainduko diguzu mesedea?

—Lasai, agure, Kantoiko jendeak jakingo du nola eskertu —agindu diot beti jostetan.

Done Peru kalean behera bilin-bolanka goazela, batik bat emakumea non jausi han jagi lotsagabeki dabilela, Juderia Kalea hasten den kantoi-gurutzeraino iritsi gara laster.

—Gu ez gara sartuko, badaezpada, ez dugu nahi judu madarikatuok oharkabeen gu bahitzea gure gorpuak txikitu eta gero almandrongilak egin ditzaten —trufa egin dit agureak.

—Zuk esan non dagoen Jakob Gaonen etxea eta nik egingo dut behar dudana —inondik ere ez dena inor aizto batez hiltzea, baizik eta kale hartan bakarrik eta ahal bazen ilunpean egon orduko handik lasterka edo ospa egitea, auskalo nora ihesi.

—Ezta kristaua, judua baizik —aitortu diot zapla.

—Zatoz nire atzetik mediku judu horren etxea ondo asko erakuts diezazudan —agureak eskatu dit kantoi bazterrean jar nadin-. Ba al dakusazu bi kriseilu handi horien atean dagoen atari ikaragarri ederra edo arranditsua, hamaika mairu apaingaez jantzia?

—Bai, jauna. —Sinagogakoa da. —Eta?

Eta bat-batean ustekabez nire atzean isil-gordeka jarritako urdangak bultza egiten nau kantoian beherantz. Buruz gora jausten ari naiz, baina sustoa gainditu orduko benetan ikaratsen nauena ez da hartuko dudak kolpea, gainbeheraren azpian zain dudana, hau da, nola esnatuko, ez baitut inolako dudarik lozorrotik irteten ari naizela nola edo hala, amesgaizto honen hondarrean nagoela, ezin baita besterik esan, ez luke inolako zentzurik, ez letorke bat amesgaiztoen kontura dakidantxoarekin.

III

Itzarri naiz atzenean. Hau zoramena, hau! Izan da nire bizitzaren amesgaiztorik luze eta zakarrena. Hurrengo borroaren haizkora ala urkamendia izango zelakoan banengoen. Zorionez dena bukatu ei da. Bazen garaia lur jota nagoelako, izerdi patsetan, Madrileko San Sivestren parte hartu banu bezala. Esnatu bai, baina oraingoz ez dakit non nagoen. Baina, gelako hormak osatzen dituzten adreilu zer zurajeon edota sabaiko zeharraga handian errepatzekotan, susmoa badut Alde Zaharreko etxe bateraino eroan nautela. Badirudi jatorrizko egitura zein altzariak gorde edo itxuratutako gela batean nagoela, seguru asko Ertaroko etxeak zer-nolakoak ziren bisitariei propio erakusteko antolatuta, nik oraindik ezagutzen ez dudan estreinaturiko Hiriaren Museo delakoa. Hau da gogoan hartzen dudan aurreneko aukera, bestea ez baitzait batere gogoko, beldurgarria begitantzen zait-eta. Bigarren aukera oraindik ametsetan egotea litzateke, hau da, etengabeko lokamutsari eustea. Etzanda nagoen ohe marduletik jeiki eta oinak zoruan jarri orduko aurreko arasan isiotuta dagoen lau adarreko zutargiaz jabetzen naiz. Baina ez dut aukerarik tramankulu horren esanahia asmatzeko ohetik bizpahiru urrats emandakoan gelako atetxoa zabaltzen da-eta.

—SARA, ZU ZARA! —deiadar egin dut pozaren pozaz, Sara ikusteak museoarena nolabait egiaztatzen didalakoan.

—Bai, ni naiz Shara. Nola asmatu duzu —galdetzen dit bat-batean zeharo ezezaguna begitantzen zaidan neska kikilduak.

—Sara, laztana, ez nauzu ezagutzen edo? —hasia naiz sumatzen zer gertatzen ari den, baina, badaezapada.

—Noski baietz, zu zara orain dela pare bat egun nire aitak kalean maspil-maspil eginda bildu zuen gaztea —argitu dit Sararen kopia peto-pettoa den eta inola ere aurpegira zuzen-zuzen begiratzen ausartzen ez den neska beltzaranak, hau da, nire benetako Sarak baino ilaje zein larru ilunagoak dituenak.

—Orduan zu ez zara Sara —bota egin dut ia ahapeka eta erabat abaildurik.

—Oraingoz behintzat Shara Ben Gaon, edo Shara Ben Yakoob, gurean artean esan bezala —horra hor neskaren erantzuna, oraingoan zuzen eta agian ere apurtxu bat destainaz ere aurpegira begira-begira.

—Oraingoz? —galdetu diot benetan txunditurik.

—Bai jauna, ala ez al dakizu zure jendeak herritik bota nahi gaituena? —lehen baino ausartago.

—Nire jendea? —garai honetan galdu nintzenez geroztik dena arrotz egiten zait.

—Ez egizu tontoarena, ondotxo jakin behar duzu-eta, zuek kristauok eskatuta Gaztelako erreginaren erabakia —amorrua eta guzti sumatu diet bere hitzei.

—Ba ez, baliteke hartutako kolpeak edo ahaztu izana —saiatzen naiz nola edo hala desenkusutzen.

—Gaztelako judu guzti-guztiak kanporatzeko agindu du Isabel erreginak —azaldu dit betoskoa jarrita.

—Ez nekien ba —baina bai juduen kanporaketa suertatu zela orain dela bostehun urte-edo, mila laurehun laurogeita hamabian, lehendabizikoz ere data dezaket nire amesgaizto hau, zertarako? Auskalo!- Ezin duzu asmatu nola gaitzesten diodan erabaki horri, bidegabekeria galanta begitantzen zait, Erresumari kalteak besterik ekarriko ez dizkiona, bihotz-bihotzez diotsut.

—Lasai, mutil, sinesten dizut, badakit kristau guztiok ez digutela halako kalamidaderik opa, ez luke zentzurik hainbeste mendetan elkarrekin bizi eta gero, egon behar da halabeharrez zu bezalako juduzaleren bat —begi bistan dago neska honek nire Sara bezain zorrotz eta zirtolaria dela, nik uste ere berak aukera ematekotan ederto konponduko garela-. Egia esan, kanporaketa aspalditik espero genuen, esan liteke alde aurretik iragarrita dela, badira urte pila antzeko neurriak edo legeak sortzen ari direla Torquemala malapartatu hori bezalako elizgizon konbertso sasikoak. Orain arte, ordea, Gaztelako erregeen babesu genuen saskikumeon eskariei aurre egiteko koroaren altxorra ginen aldetik. Duela urte gutxi batzuk Inkisizioak Sevilla, Cadiz eta Cordobako diozesietako judutarren kanporaketa lortu zuen, baina Jainkoari esker Errege Katolikoek behin behirra babesu eman ziguten. Oraingoan, aldiz, dena ezin txarrerago okertu da Granada erresuma mairua menperatu eta gero, badirudi Elizaren laguntza oso garrantzitsua izan dela konkista antolatzerakoan, hori dela eta azkenean “betiereko irtenbidea” lortu dute gure etsaiek: konbertitu ala erbesteratu, hori da eskeinitako aukera bakar-baka- rra.

—Eta zuek zer egingo duzue? —ausartu naiz galdetzen doi-doi.

—Zer gura duzu egitea? —erantzun dit Sharak benetan harrituta- ez diogu sekula uko egingo gure fedeari, bilduko ditugu gure hondasun guztiak eta Nafarroa alderantz joango gara.

—Ez al dizu penarik ematen zure jaioterria behin betiko uzteak?

—Gure egiazko jaioterria gure arbasoen fedea da —esan du neska juduak serio-serio.

—Zure jokaera hori laudagarria da, benetan, baina...

—Ez dago bainarik, hemen ez gaituzte maite, beraz hemendik egingo dugu alde —Shara honek gero eta antz handiago hartzen dio nireari.

—Tira ba, ez dakit zer esan...

—Zerbait esan nahi baldin baduzu zatoz nirekin beheko solairuraino nire aitari eskerrak ematera kalean bildu, bere etxera eraman eta zeharo sendatu zaituelako —proposatu bainoago agindu egin dit Sharak.

Liburutegi moduko ganbera batean, pergamu artean buru belarri, bizar zuri eta ia sudurra bezain luzea duen agure batek hartzen gaitu, Sharari musu eman eta niri bi eskuak luzatu eta hestutu egiten dizkit agurtzearren edo.

—Pozten nau zu ia zeharo osatu izanak -esan dit goitik behera agudo begiratu eta gero- kalean bildu zintugunean maspil-maspil eginda zeunden. Egundoko egurra eman zizuten, ezagunak al zenituen zure oldartzaileak?

—Ez, laburrak ote ziren —azkenean asmatu egin dut, ez baitakit oso ondo noraino komeni zaidan egia osoa esateak ala isilean gordetzeak.

—Noski, hiria gero eta arriskutsuagoa bilakatzen ari da aspaldiko partez —esan du agureak gogoeta beste inon duela.

—Guretzat arriskua betikoen aldetik sortu ohi da —moztu dio bere alabak oso modu zakarrear.

—Eta betiere jakin izan dugu aurre egiten —erantzun dio aitak betoskoa jarrita, badirudi Shararen portaera ez duela batere gustuko.

—Eta oraingoan nola egingo diogu aurre Erreginaren kanporaketa aginduari, ez baitigute ere denborarik uzten gure ondasun guztiak behar bezala saldu edota biltzeko —norbaiti aurre egitekotan oraingoz aitari ari da alaba odolberoa.

—Halako kinketan gure arbasoek beti egin zuten bezala, eskaintzen dizkiguten aukera bakanetara nola edo hala moldatuz —erantzun dio aitak alabari gogor eta zorrotz.

—Gure hurko arbasoak hiri honetako Judumendian ehortziak daude, jai eta hil bahi dudan lurrian, ez dut ezertan burua makurtu behar hemengo ez naizela esaten didatenen aurrean —oihu egin du Sharak negar zotinka hasi aurretik.

—Shara ezin zuzenago dago, ezta batere bidezkoa zuekin egin nahi dutena —ausartu naiz esaten ustekabez, neskaren zentzunezko hitzek eraginda edo, etxe honetan apopilo hutsa naizen aldetik euren ika-miketan sartzeko inolako eskubiderik ez dudala zeharo ahaztuta.

—Eskertzen dizkizut zure hitzat bihotz-bihotzez, baina jentila zaren aldetik ezin duzu ulertu gure herriak mendeetan zehar pairatu beharreko zorigaitza —errieta egin dit agureak guztiz irribarretsu eta abegikor.

—Noski ezetz, baina bai eta ezin hobeto Shararen esandakoaren muina —oraingoan nik aurre egiten diot agure asko- jakin honi, nire laguntzaile eta osagile eskuzabalari- bera hemen jaio eta hemen hil nahi du, edonork uler dezake.

—Ba nik ezin dut, batez ere gurea herri alderraia den aldetik, hori bai dela jundu izatearen muina —adierazi digu inoiz baino jakintsuago eta estrainekoz ere hiriko juduen buru nagusi agertzen zaidan agure bizar zuri luzeak.

—Judua edo kristaua bainoago pertsonak omen gara —ez dut inolako asmorik inoren aurrean kokiltzeko.

—Arrotzarekin bat nator, oso —aurreratu zait Shara.

—Ederto ba, hori horrela bada, benetan sinesten baldin baduzu, laztana, baduzu aukera paregabekoa hemen bizitzen jarraitzeko —Shararen aita inoiz baino serioago.

—Zein ba? —galdetu dio alabak aztoratuta.

—Edozer erabaki baino lehenago zurekin hitzegin nahi nuen bakarka, baina tira ba, hain erresumindurik zaude, ezen gizon honen presentzia ezin aproposagoa begitantzen zaidan aspalditik gogoan nuena behingoz azaltzeko —agurearen begiek dir-dir egiten dute bat-batean.

—Esan ba —Shara eta biok jakinminaren menpe.

—Orain dela egun batzuk udaleko ordezkari den Juan de Salvatierra jaunak proposatu zidan kanporaketa agindua betetzeko egunaz gero hirian urtebete jarraitzea sendagile lanetan.

—Sasiko halakoak! —deiar egin du Sharak- Gure lurretik botatzeko ez dute eragozpenik, baina bai euren mediku alprojen orden benetan sendatzen dituen mediku juduarengana erreguka joateko.

—Ixo, Shara, adi egon esan nahi duzudanari —agindu dio aitak- baduzu aukera bataioa hartzeko eta batez ere kristau batekin ezkontzeko hemen bizi ahal izatearren.

—Eta nire fedeari uko egingo diot —galdetzen du Sharak harri eta zur.

—Bai horixe, itxuraz behintzat, baina zure baitan ordea gure arbasoen fedeari eutsi ahal izango diozu —argitzen dio aitak.

—Eta norekin eskundu nahi nauzu —Sharak dio, ia bere onetik at.

—Nik uste gure lagun honek baduela gure ardura nola ordaindu...

IV

Sararekin, ez, barkatu, nire aita Maria Dieguez de Gauna andrearekin ezkondu eta bere aitagarreba mailegu onean emandako zenbait sosez nire aitajaunari berari erosi egin zion dozena erdi bat kupel ardoa Errioxa aldetik ekartzeko asmoz. Aitajaunak ez zion inola ere ezer saldu gura, oso argi eta garbi esana zuen nire aitak Olartetarren aroztegiak kargu egiteari uko egindakoaz gero ez zela bere semea, are gutxiago fidatzeko inor, arrotz larrusendo handimandi bat baino. Egia esan, nire aita arotzen ermandadetik bota egin zuten behin betiko, nahita ere ezingo zuen inoiz behin berriro kupelgintzan jardun. Hala eta guztiz ere, inork ez zion eragotzi merkataritzan saiatzea, diru falta ez badin bazen edota nire aitajaunak amore egin zezan hiriko handiki baten arrimua. Noski, aitajaunak ezin zion inola ere ezetz esan bere seme ernegatuarentzako kupelak saltzeari jaio aurretik ere etxagun zein jagole duen

Ollanda Dorreko Iñigo Velez de Gebara jaun txit prestu eta boteretsuak berak agindu egin ziolako, hain zuzen. Ulertu ere ezin zuen ulertu aitajaunak zer dela eta nire aita bezalako alproja batek hain jaun ahaltsuren arreta zein babesla lortuak zituen. Susmoa bai, bazeudela hirian bolo-bolo ari ziren zurrumurruak, eta ia denak aspaldiko mediku judu oso ezagun eta aberats batekin elkarlotuak. Badirudi judu horrek, Erregina Katolikoak agindutako kanporaketa dataz eta hiriko udalak propio eskatuta urtebetez mediku lanetan jardun eta gero, bere alaba kristautu berriarekin ezkondu gaitz sendo eta kementsu bati bere ondasunetako puska eder bat ezkonsari eta beste puska handiago bat mailegutuan eman zizkiola. Nolabait ere, eta bere jatorriko jendearekiko gauza guztien gaineko mesfidantza zein bortizkeria alde aurretik kontutan hartuta, halako emaitzaren zilegitasuna inork dudatan jar ez zezan aspalditik babesle zein zorpeko ere zuen Iñigo Velez de Gebararen jaunarengana jo egin zuen erreguka. Betiko mihiluzeez ustetan bazuen, gainera, motibo on bat bere bizi osoko azken faborea eskatzeko: Ollanda dorreko jaunak arerio zituen hiriko hainbat jaunak bere suhigaia bidali egin zuten bera akabatzeko, hau da, Gebatarren hiriko nagusigoa nola edo hala baina baita zuzen-zuzen ere gutxiestearren euren malgapekoetariko bati kalte egiten zioten aldetik erronka gisara.

Dena dela, eta hegoaldeko hiribururaino ardoa kupelatan ekartzeko behar adina diru eskainitakoan, Ollanda Dorreko jaunak idazkari ere hartu zuen nire aita. Azken hau oso garrantzi handiko gauza izan omen zen nire aitak bere senitartekoen patuari uko egin eta gero, hots, nire aitajaunaren aroztegia bertan behera utzi eta gero, nolabait bizkarra eman zion artisauen taldeak barkatuta izan zedin, eta baita zeharo arrotz eta ia bultzaka sartu berria zen beste giza taldeak, merkatarienak, muzinez eta guzti onartuta ere. Aita merkataria zen, oso merkataria azkarra ere bai, bizpahiru urtez negozioa sendotu eta berehala zabaltzeari ekin ziona. Hiribururaino ekarri ez ezik, hegoaldeko ardoa iparraldeko lurraldeetara ere eroaten hasi zen behin kupel eta mando gehiagor hornituta. Esan liteke laster, oso laster, aberastu egin zela ia den-dena ezin hobeto suertatu zitzaizolako, aurreneko etekinak lortu bezain laster gainerakoak erreskadan heldu zitzaizkiola. Alabaina, ezin diogu meritu osoa bere patu onari egotzi. Nik behintzat ez dut horrelako pitokerietan sinesten eta bai nire aitak izan zuen aukera

paregabekoan bere negozio zorrotasun berezkoari eusteko. Nire aitak bazituen Taborniga herrian ardogintzan ari ziren senitartekoak. Horrenbestez, ez zitzaion askotxo kostatu hauek konbentzitzea bere negozioan parte har zezaten etekinen lagin baten orde. Horretarako ere zinezatu egin ziren bere jaun Iñigo Velez de Gebararen agindua zuela hiriburuko zein gebaratarren jaurerrietako tabernari gehienek bere ardoa erosiko ziezaioten. Ez zuen, beraz, hiriko gainerako merkatarien aldetik oztopo handirik arian-arian laster eta artez aberasteko. Horrela izanda, sendagile saiatu eta zintzoa, urraiztar guztiek estimatuta eta goraipatuta, eta hala eta gutiz ere herbesteratu behar izan zuen aitaginarrabak jaregindako Kalebarriko etxebizitza utzi eta hiriko merkataria aberats gehienak bizi ziren Errementeria kaleko jauregi xume baina dotore batera aldatu egin ziren nire gurasoak behin betikoz. Bertan, Ollanda Dorrearen itzalpetik gertu-gertu zegoen jauregi batean jaio egin nintzen ni, behinola Joan Ruiz de Ozenda eta Maria Diez de Abezia jaun-andreek Erremenderia kaleko bost orubetan eraikitako harrilanduzko jauregi errenazentista batean eta geroago gebaratarren eskuetara igaro zena ez dakit nik zeren ordainez. Edonola ere, kalez aldatutakoan nire aita Ollanda Dorreko jaunaren idazkari izan ez ezik maizter ere bilakatu egin zen. Orduz geroztik, eta batez ere gebatarren eskakizunak areagotu ahala, nire aitak gogoan izan zuen ia gauza bakarra maiztergo pozoitsu hori bere bizkar gainetik kentzea izan zen. Ez zuen lortu bizi bitartean, Ollanda dorreko jaunarekiko mendekotasunetik askatzeko irtenbide bi zituen bakar-bakarrik: gebaratarrei bigarren aldiz traizio egitea, hau da, Paterninarren taldekoei, eta Kantoiko jendearekin bat eginez, ala bestela, behar bezain diru irabaztea ardoaren saleroskeraren bidez Ozendatarren jauregiaren edo beste baten jabe bihurtu ahal izatearren. Aurrenekoa, ordea, ez zen batere egingarria, batez ere Salvatierra anaiak eta enparatuko enaginduari muzin eginez nire aitak garbitu behar zuen judu gorrotatuaren alabarekin ezkondu eta gero. Bigarrenkoa ere ikaragarri gogorra begitandu egin zitzaion nire aitari, gurea bezalako jauregi bat erosi ahal izateko ardoz zaturiko mando andana eta baita hainbat joan-etorri ere ezinbestekoak omen ziren behar besteko diru bildu aurretik. Saiatu, saiatu egin zen nire aita bere negozioa zabaltzen, baina horretarako ere gebaratarrengana jo behar izan zuen beste behin, hiriko inork ezer saldu nahi edo ahal ez baitzion Ollanda Dorreko jaunaren baiezkorik gabe. Hala eta gutiz ere, nire aitaren libertatearen kalterako zein nire senipartearen onerako, Iñigo Velez de Gebaratarren idazkaria gero eta gehiago zordun egin zen bere senitartekoen ardoa kostaldeko hiri ia guztietara eroan ahal izateko asmoz. Ondo esan dut, nire aitaren kalterako inoiz ezin baitzion uko gebaratarren esanekotasunari, baina niretzat ezin hobeto dirutza ederra jaso egin bainuen aita hil eta gero. Nolabait esateko, nire aitaren ardo salerosketaren mozkinak hain handiak izan ziren, ezer negozio berri eta handiagoei ekiteko kemena piztu egin zuten nigan, besteak beste Tabornigako ardoaren orde Arandio mendilerroko artzain saiatuek egiten zuten artilea kostaldeko portuetarantz garraiatzea. Nire asmoa zen oso argia, Arandioko artilea Flandes aldeko itsas merkatariari saldu eta bertan manufakturatutako oihal finak erosi nire hirian zein ingurukoetan banatzearren. Horrenbestez, falta nuen bakarra bere sosak nire aurrezkiekin batera jarri nahi zituen bazkide bat omen zen. Eta zein bazkide egokiago edo eskuzabalago, aitagarreba baino? Banuen aspalditik emaztegai bat gogoan, auzoko ere nuen neska guttiz gazte, eder, lirain eta batik bat leinu oneko bat: Teresa Martínez de Ollauri. Bazen ezkontza ezin

aproposagoa, bai nire xede komertzialei eusteko, bai nire seme-alaben ama izateko. Bestela esanda, Teresa ezagutu eta bertan maitemindu. Harrezkero nire etorkizuna ezin oparo eta zoriontsuagoa begitantzen zitzaidan, oroz gain behar besteko ondasunez eta hurrez, hots, oinordekoez josita. Tamalez, nire leinuaren patua ez omen zen nik uste bezain garbia, jadanik nahikotxo ahaztuta bainion nori zor nion ordura arteko zori ona.

Izan ere, Ollanda Dorreko azken gebaratarra aspaldi joana zen bere leinukoek Guadalajara aldeko lurjabego zabalean duten gaztelura bizitzera eta orduz geroztik ez zegoen hirian nire auzoko jeloskor eta batez ere mendekugoseengandik babesteko inor. Banuen bai Paterninarren taldeko beste leinu batzuen onespena, baina inola ere ez hauen babesaren nire ezkontza zapuztearren egin zidaten salaketa ezeztatzerakoan, haietariko inork ez baitzuen gogorik, ez adorerik, Santa Inkisizioari aurre egiteko.

Egiazko federa itzultitako emakumezko judu baten semea izanda aspalditik beldurrak nembilen behin edo behin Inkisizioarekin tirabiretan sartuko nintzen. Ez naiz hain inozoa nire burua On Bildur buruzagi duen erakunde baten nahierakeriatik libre ikusteko. Amak berak gaztigatuta ninduen halako batean bera ere bele beltzen epaitegiraino eramana izateko etengabeko arriskutan zegoela, ezagun bazituela bera bezalako lagun judu pila bat bataioa hartu eta gero halako funtsik gabeko salaketei aurre egin behar ziotenak. Aitak ordea gogoratzen zidan behin eta berriro Garzia de Olarterrak betiereko leinu kristaukoak ginela, ez nuela alde horretatik ezeren bildur izan behar gure arbasoak Taborniga herriko aitoren seme-alabak eta batik bat kristau zaharrak zirelako. Alperrikako aholkuak aitaita mediku judu txit ezaguna eta honen alaba konbertitua nituen-eta, inola ere eskualdeko herrixka bateko nekazari batzuen odol garbiak arindu ziezadaken zama nire hiriko etsaiek xaxaturiko Elizaren erakunde zorrotz eta gupidagabe baten aurrean. Jakin bagenekien ere salaketa gehienak inbidiak zein mendekuak eraginda zirela, baita Elizak hau guztiaren funsgabekeria aintzakotzat har zezan bere pareko edo agian handiagoa zen beste botere baten laguntzaren beharrean geundela ere. Gure hirian bertan Eliza baino boteretsuagoa omen zen inor izatekotan herriko handiki leinuen buruak, hau da, Ahaide Nagusiak, genituen soil-soilik. Hori dela eta, Inkisizioaren epaitegiaren aurrean aurkezteko agindua heldu orduko nire seme Iñigo Guadalajara aldera bidali egin nuen egundaino babesle genuen Ollanda Dorreko Gebaratarren premuari gure hiriko etsaien azpijokoaz berri eman ziezaion. Bien bitartean, aldiz, nire burua hirian Inkisidorearen ordezkaria zein kantoikoen taldekoa zen Juan de Anda komisarioaren eskuetan jarri eta bere salaketaren nondik norakoak, «había renegado de Dios y de Nuestra Señora y de la leche que mamá», entzun eta gero Cahahorrako kartzelaraino bidali egin ninduen ustez edo epaitua izatearren.

Gauean leotzean nengoela nire egoera ezin petralagoaz gogoeta egiten saiatze aldera, aspaldidanik txitean-pitean eta ia beti ametsetan gogora ekarri ohi dudak burutazio bati ekin nion enegarren bider. Ni ez naizela garai honetakoa sinetsia nago, hots, jaio egin nintzela oso ondo bereizten ez dakidan etorkizun batean, orain dela mende pila, dena ezagun, gertuko eta oraingoarekin alderatuta hamaika aldiz aurreratuagoa, atseginagoa eta batik bat libreagoa zaidala. Hori dela eta inguratzen nauen ia guzti-guztia arrotz eta maiz ere gozage sumatzen dut,

bizi ari naizen mundu honen parte ez banintz bezala, kanpotik etorritako atzerritar bat baino, oso kanpotik, edo gerotik hain zuzen, etorrikakoa. Askotan gauzak ere ikuspegi horretatik ikusten saiatzen naiz, hau da, mundu guztiz zuzen eta libreago batetik ezustean edo iritsitako gizakume arrotz baten begietatik. Orduan ikusten dudan guztia gaitzesgarria eta begitantzen zait, itzela, boteretsu bakan batzuek euren gogara eta batez ere onurako antolaturiko gizarte bidegabe eta guztiz errukigabe batean bageunde bezala, non gizakien arteko aldeak gaindiezinak diren, eta baita ezjakintasuna zein edonongo bortizkeria nagusi ere. Dena dela, aitortu beharrean nago ere gogoeta honen nondik norakoak oso susmagarriak direla, berehala antzematen dela benetako zioa: nire subkontzienteak errealitateari uko egiteko asmatutako saio alperra. Errealitatea, ordea, nik uste eta nahi baino gordinagoa omen da beti, batez ere ni bezalako ama konbertitu baten semearentzat fede bakarra aldarrikatu eta onartzen duen erresuma atzeratu eta txit jerarkiko-fanatiko batean. Errealitateak leotz honetaraino ekarri nau nire etsaiek mendeku gisa erabili gura dituzten salaketa batzuei aurre egiteko, inola ere ezeztatu behar ez nituzkeenak nire burutapenaren arabera gizakumeak libre eta ahal den moduan ere ikasiak edo gutxienez buruargiagoak izango ziren nire ametsetako gizarte batean bene-benetan bizi banintz, non nork bere fedeari nahi bezala eusteko eskubide osoa izango lukeen.

Baina, ametsak amets bizi naizen mundu honetan ez naiz sekula libre izango, Ez behintzat edonork, edonoiz, ezustean eta ia beti zuzengabe salatu, atxilotu eta kondenaturik izateko beldurretik, hau da, nire arbasoengandik oinordetutako kulpa baztergabekotik, gu jaio eta atoan errudun bilakatzen gaituena enda madarikatu baten odola eramateagatik. Badakit nik hamaika zentzuzko lagunekin batera, konbertituenganako herrak eta etengabeko eraso zein salaketek ez dutela buru buztanik, zoramendu guzti honen atzean oso bestelako asmo susmagarri batzuk direla, besteak beste kristau zaharren gogoia merkataritzan zein administrazioan lehiakide izan ohi dituzten konbertituak halako azpijoko maltzurrez baztertzeko asmoz. Gogoratu besterik ez dut egin behar nire hiriko leinu konbertitu ospetsu eta diruz behintzat boteretsu bati orain dela bizpahiru urte doi-doi gertatutakoa. Sanchez de Oñate kristau berriez ari naiz, noski, Kordoi Etxe famatuaren etxagunak, merkataria leinu guztiz saiatu eta ustez edo nire hiriko handi-mandikiekin ikaragarri ondo erlazionatu bat. Tamalez, badirudi Sanchez de Oñatetarrak ez zeudela beraiek uste bezain ondo onartuta eta batez ere babestuta hiriko handiki guzti-guztiek. Azken hau gauza jakina zen hiri osoan, ezin zen besterik izan merkataria txit azkarrak eta arrakastatsuak ziren aldetik. Ezin ziren guzti-guztiek ondo edo gutxienez komeni izan bezala konpondu. Merkatalgintzak ez du aukerarik ematen horrelako adiskidantza guztiz inozo baterako, merkaturia bataila leku omen da, eta behin batailan sartuta etsaiak edonon sortzen dira halaberrez. Haiek bazekiten, nik bezainbeste, etsaiok aurre egin behar zietela nola edo hala, ez zela posible den-denok euren alde izatea, negozioetan garaile izateko beste batzuk galtzaile ere gertatu behar direla. Izan ere, merkaturian zein hiriko agintean aurkako zituzten gainerako leinu boteretsuen eraso zein salaketak saihestu edota gogor egiteko guztiok baino are boteretsuagoak ziren beste jauntxo batzuen laguntza lortu egin zuten hainbat

mota eta zenbateko opariez bitartez, hau da, Oñatetarren patrikak diruz mukuru egon bitartean.

Onbidearen nondik norakoak ez dira inoiz erraz asmatzekoak, beraz, eta badira boladak aurrera ezin atera izaten direla baten batek daki zeren erruz ala inork inola ere aurrez ikus ez dezakeen motibo edo ustekabekoagatik. Oñatetarrei halako bat suertatu egin zitzaien Gaztela aldetik ekarri ohi zuten artilearen salneurriek gainbehera ederra ezagutu zutela Europan erlijio gatazkak ia oharkabea sortu orduko. Mozkinak Sanchez de Oñatetarren etxean murriztu ahala hiriko handikien adiskidantzak zein leialtasunak ere beherantz egin zuten. Egia esan, Gaztelako artilearen garraio eta salerosketaren negozioak porrot egindakoan Oñatetarren diru sarrera gehienak eskualde osoan sakabanaturik zituzten lur jabegoen errenten bitartekoak bilakatu ziren, hain justu ere ordura arte lagun zein babesle zituzten hiriko handiki askok gutiziatzen zituztenak. Haietariko bat Pedro Sanchez de Oñate Inkisizioaren aurrean salatu egin zuen Juan Fernandez de Paternina, Arraraingo dorretxeko jauna eta aspaldidanik bekaizkeriak akuilaturik Oñatetarren lurak eskuratze aldera azpijanean zebilena. Judu zein kristauen Jaungoikoari esker, umetan Jonas izandako Pedro Sanchez de Oñate kristau berriak Arraraingo Dorretxeko Jauna auzitara eraman eta hau kondenatzea lortu egin zuen. Badirudi merkatari kristautu berriak auzialdian izandako defentsarik hobea bi urte lehenago ezkonduko andrearen belauna izan zela: Maria Ruiz de Ozenda, Urizarra herriko jauntxo eta Gaztelako Alferiz Nagusia izandakoaren alaba, nork leinu kristau zahar baten ondorengoa izanik Pedro Sanchez de Oñate judu kristautu berriarekin ezkonduz ausardi itzela erakutsi egin zuen. Tamalez, Paterninatarrak ez zuen amore eman, eta aita zendu orduko honen oinordekoaren kontra jo zuen mendeku bila. Ezin jakin nola, baina galdutako auziaz gero bi urtetara Joan de Fernandez de Paternina jauna jabetu egin zen, hiriko kristau zahar eta etxe ezin hobeko Juana Ibañez de Quintana andrearekin ezkonduka egonda ere, bigarren Pedro Sanchez de Oñate merkatari saiatu eta batez ere bidaiatuak Nafarroako Viana aldean maitale judu bat bazuela. Ez zuen denbora alperrik galdu, hiriko alkate izendatutakoan Juan Fernandez de Paternina jaunak bigarren Pedro Sanchez de Oñate salatu egin zuen fede ukatzailea zela eta bere moduko beste hainbat konbertitu susmagarrirekin Nafarroako Viana herrian biltzen zela euren fede juduaren betekizunak zirela aitzakia. Torturatu, berrogeita hamar zafraldi jasoarazi, mihia moztu eta pikotan iltzatzeko agindu zuen Juan Fernandez de Paternina alkate berriak bat ere epaiketarik egin gabe. Agidanez, Sanchez de Oñate honek ezin zuen behar besteko diru bildu salaketak arbuiatzearen alkatea baino epaile zuhur, eskuzabal eta batez ere boteretsuagoak zirenen laguntzaren bitartez.

—Baina ez ahaztu, Martin, azken Pedro honen seme eta Ganibeteria kaleko Kordoi Etxe famatuaren jabea zen Juan Sanchez de Oñaterekin, Aberatsa goitzenekoarekin, saiatu ere egin zirela halako bidegabekeria egiten alper-alperrik.

Zuzen eta azkar zegoen nire aitagarreba gaia, kartzelan bisita egitera joanda azaldu zidanean; nahiz eta Juan Sanchez de Oñatek, Juan Aberatsak, kordoi frantziskotarra landu zuena bere etxe atariko harrian, jendaurrean kristau zintzo eta dohatsu agertu, haren arerioak saiatu egin ziren

etengabe Inkisizioaren hatzaparretara jaurtitzen. Ez zuten lortu, ez, Aberatsak bere diru osoa baliatu egin baitzuen bere aurkako salaketa guztiak hurrenez hurren eta ezin artetsuago ezeztatzeko.

—Nik ere ordain nezakek derrigorrezko borondateren bat hire auzia bertan behera gera dadin —gaineratu zuen nire emaztegaiaren aitak, Diego Martinez de Ollauri merkatariak.

—Baina nik ez dut ezer egin, ni beti kristau zintzo-zint- zoa izan naiz eta ez diot inoiz nire fedeari muzin egin —erantzun egin nion zeharo atsekabeturik.

—Noski ezetz, hori badakit nik inork baino hobeto txikitxikidandik ezagutzen haudan aldetik, bestela ez niake inondik ere nire alaba kuttuna emaztetzat emango —merkatari askojakinak lasaitu ninduen- baina, badakik noren semea haiz, betiere izango duk makula hori hire gainean.

—Bai, mundu honetako ez izatearena... -bota egin nuen ustekabez.

—Zera?

—Deus ez, gogoetatsu nengoen bidegabekeria eder hau dela-eta —ez nuen inolako gogorik nire aitagarreba-gaiarekin nire barreneko kezka zein ametsen kontura eztabaidaka hasteko.

—Ez diok zure buruari inolako errurik egotzi behar, oso fede oneko mutiko zintzo eta zuhurra haiz —orduan begitandu zitzaidan bere alabari baietz esan aurretik ere suhitzat hartzen ninduela- Hire akats bakarra negoziotan sortutako arerioek hi baino maltzurragoak izatea, batik bat salatu egin hinduena. Ala uzte al duk haietariko baten batek ezinbesteko borondatea ordaindu ez zuenik auzitara eroan hintzaten nik asmoa izan baino lehenago?

—Baliteke, noski, halako jende maltzurra, bihozgabekoa, ustela izatea. Baliteke lagun ere nuen norbait ni salatu izana, baliteke ere hau guztia amesgaizto bat baino ez izatea —ageri zen ametsarena gero eta gogokoago nuela.

—Edonola ere, orain ezin duk amore eman, ez eta tormentura eramanda ere...

—Tormentupean jartzen baldin banaute gauza naiz esateko Kristori berari iltzeak jarri zizkiona izan nintzela —ametsetan ari nintzela zer axola zidan niri halako birao bat botatzeak ere.

—Orduan nire diligentzia guztiak alperrikakoak izango dituk —igarri egin zidan honezkero nire aitagarreba bezala jokutzen zuen Diego jaunak sudurra zimurturik.

—Baina nik ez dakit nola ordain... esker niezazuke hau guztia... -gazitatu egin nion

—Lasai hadi, motel, asmatuko duk hik, oso mutiko saiatu eta azkarra haiz, hire adinekoen artean negoziotan ezagutzen dudan adituena, biok jakingo diagu nola garaitu gure etsaiak...

V

Askatu egin ninduten, kartzelatik eta batik bat Inkisizioen esku zein tramankulu gupidagabekoen tormentutik behinik behin. Tormentua, aldiz, geroxeago nagusitu egin zen nire bizian. Familiaren tormentua, benetan jasanezina, hau da, ni aitagarrebaren eskuetan jausitakoan ezagutu egin nuena egunik egun. Hasiera batean Diego Martinez de Ollauri jaunak maileguz emandako diruaz nire onbidea zabaltzeko inbertitu eta mozkinak patrikaratu ahala ezin hobetu konpondu egin nintzen bai aitagarrebarekin zein emazte izan nuen bere alabatxoarekin. Maria Martinez de Ollauri ez zen nolabaitekoa, hau da, bere giza taldeko emakumezko buruharro eta aldi berean ere senarrarekiko otzanak, gizonezkoen mundutik zein euren kezketatik ahalik eta urrinago bizitzen saiatzen dena, andrezkotzat hartzen diren eginkizunetara emana, emetasuna bizimodu zein kaiola bilakatuz. Ez eta urrundik ere, Maria bere aitak ez izandako premia omen zen, merkatariaren dohain guztiak heredatu eta bere ogibidearen amarru zein sator-lan guzti guztiak ezin hobeto zekizkienak, bere aitaren altzoan hezi baitzen bere adineko neskato gehienak amarenean ostendu eta koskortu bitartean. Hori zela eta, Mariarekin ezkondu izana bere aita bizkar gainean izatea bezalakoa suertatu egin zitzaidan. Izan ere, aitortu beharrean nago Mariaren interesak ez zirela inoiz nireak izan bere aitarenak baino.

Jakina, ez nintzen maite nuen andrearekin ezkondu, nahiz eta nire gustuko neska izan, ene ustetan ikaragarri ederra eta batez ere aparteko sasoikoa, hots, gutxienekoa ene bizilaguna bilaka zedin. Baina ez zen inondik ere maitemindu egin ninduen emakumea, nire aitaren ustetan komeni zitzaidana baino. Egia esan, erakarri, liluratu eta maitemintzeko aukerak zituztenak oso bestelako emakumezkoak izaten ziren, batez ere bigunagoak, alaiagoak eta eskuzabalagoak ere izaten zirenak, hau da, Mariaren aldean. Nire emaztea ederra bezain harroa zein gogorra zen aitzitik. Horrexegatik argi eta garbi esan behar dut, Maria Martinez de Ollauri emazte nahi nuen nire hiriko goi mailakoenen artera igotzeko asmoz, hau da, nire leinu madarikatukoek belaunaldirik belaunaldi egin bezala euren buruak babestu zein onera egite aldera.

Maria alaba ezin amoretsu zein leialagoaz izateaz gain, nik aukera izan baino lehenago bere aitari nire kontuen berri emateraino, lehen esan bezala, emakume ikaragarri kiskil eta handinahia zen. Ez zuen, ez, inolako gogorik ni bezalako merkatari xume eta zuhur batekin moldatzeko soil-soilik. Edo bestela esanda, hiriko handikien parean egotea helburu zuenez gero, Mariaren txikitandiko asmo nagusia, edo agian bere aitarena batik bat, bere egoitza Goikuri auzora aldatzea omen zen. Bertan, Aizkora plaza ezagunean eta Done Mikeldi elizaren ondoan, Martin de Salazarren, Karlos I enperadorearen gorteko enbaxadorearen aginduz eraikitako jauregi errenazentista dotorea zegoen. Honen inguruan altxatzen ziren hiriko gainontzeko handikien jauregi zein oinetxe gehienak, doi-doi elkarren ondoan zein baino harroagoa edo zaharragoa, besteak beste Areta, Diaz, Estella, Garizabal, Landa, Legarda,

Mendoza, Ortega, Paternina, Salinas edo Zarate leinuak, nola edo hala hiriko aberatsenak izateaz gain ohore gehien ere biltzen zituztenak, batez ere Koroarekikoak.

—Urrezko Makilaren Ordenakoaren zaldun bilakatu arte gure auzokoek ez gaituzte aintzakotzat hartuko —ebatzi ohi zuen Mariak etengabean, Salazatarren jauregitik ez oso urrun, hiriaren goialdeko Santa Eulalia kaleko etxondoan bizi ginela.

Agidanez, Arandio mendietan erosi eta kostaldeko portuetan saldutako artilearen dirua dezente suertatu zitzaigun hiriaren goialdeko etxe dotore eta apala —azken hau nik aginduta-eraikei eta gure auzoko berrien artean behar bezalako itxurak egitearren; ez ordea, azkenon begiramendua gureganatzeko. Ezin zen oso bestelakoa izan, Olarte etxearen jabea handi-mandi larru sendo haien begietara merkatarik zikoitz hutsa eta, are okerrago, kristau berri betiere susmagarria izanda. Mariak bazekien ondo baino hobeto, nola ez, hain emakume azkarra izanda, beharbada etxeko benetako negozio-gizona, ez baldin bazen bihotzez behintzat gure etxeko merkatarik bakarra, zeren eta nik negozioetan gogokoen nuena ez baitzen ezinbesteko mozkinak ateratzea soil-soilik, ez eta aterabidea bera ere, hau da, gainontzeko berezko merkatariek helburu nagusi dutena, ahalik eta etekin gehien ateratzea, mota guztietako jendearekin harremanetan jardutea zein etxetik at denbora gehien pasatzea baizik, edo bestela esanda, benetan gogoko nuena merkataritzaren nondik norakoek nire hiria begitantzen zidana zulo ilun, itogarri eta hilezkorretik zein nire senitarteko zein auzokoekiko betebeharrak alper zein aspegarrietatik hainbat urrunen alde egiteko eskaintzen zidaten aukera paregabekoa omen zen.

Ihesbide izan dut merkataritza aitarenean ikasle izan nintzenetik, oso txiki-txikitan. Hori dela eta edozein aukera edo aitzakiak balio zidan etxetik, hiritik, ihesi egiteko. Inorekin tratuetan egiteko gertu nengoen, ustezko negozio gehienok alperrikakoak izanda ere, sarri baino gehiagotan eskainitako salgaiak berez oso errentagarriak ez izan arren, benetan bila ari nintzena nire emazte zein auzokideekiko betekizunetatik ahalik eta libreen egotea baitzen. Gorroto nien, gorroto bizia, jasenezina. Norbait izatearen betebeharrak itzel aztoratzen ninduen, norbait garrantzitsu gure hiriko gizarte handiustekoan, norbait aintzakotzat. Gainerako guztiak berdin zion nire emazteari. Esan nahi dut, Mariak gure auzokideen aurrean hainbat dotoreen edo eskuzabalen nabarmentzea xede izaten zuen. Maria bizi zen gainontzekoen estimupean, sortzez edo zegokionaren arabera zein diru edo zorpeko faboreen bitartez ekinaren ekinez bereganatutako oneritzia etengabe areagotzen, badaezpada nor edo nor bere leinuaren ustezko handitasuna duda-mutan jartzen ausartzen zen. Horretarako, aldiz, nire ondasunak diru iturri agortezina ematen zuen gure jauregi apalean txitean-pitean eta ia derrigorrez ospatu ohi genituen musika zein antzerki saioak zein hiriaren goialdeko auzoenetan behar bezain aproposos, ahalmentsu, azaltzeko ezinbestekoak ziren soineko zein opari ezin duinagoak ordaintzearren. Gu ez gara garena besteok dutena baizik, horixe zen Mariaren bizileloa, oso lelo garestia, alafede.

Edonola ere, hau guztiau ez zen nahikoa, edo bestela esanda, nik Mariari eskain niezazkiokeen etekin guztiek ezin zuten bete Diego Martinez de Ollauri merkatari aberats eta estimatu baten alaba zein bezalako merkatari saiatu baten emaztea izanda ere hiriko handikien pare-parean egoteko falta zitzaion ia bakarra: titulu bat. Titulubakoak ginen aldetik ez gintuzkete sekula behar bezain aintzat hartuko, betiere hiriko handikien aldamenean onespenean eske ari ziren merkatari eskuzabalak edo handiustekoak izango ginen, hiriko egiazko handikien osperean bizkarroi. Bazekien ere ene Mariak behin delako titulua eskuratu eta gero bigarren edota hirugarren mailako nobleak izango ginatekeela, hiriko jauntxo harroek ez gintuzketela inoiz euren modukotzat hartuko, euren begietara beti izango ginatekeka merkatari handiustekoak. Alabaina, handikion erdeinua alde batera lagata, eta beti kontuan hartuta haietako asko eta askok gurekiko zein zorren morroi genituen aldetik, hiriko jauntxo larrusendook, parekotzat ez, baina bahi behintzat aintzakotzat hartuko gintuzkete nahitaez.

—Gure titulu berria zahar egingo da gure primuak oinordetzan hartu orduko —ebatzi zuen Mariak.

—Zuk badakizu Cahahorrako espetxetik igaro eta gero, eta zure aitaren amarruei esker errugabe irten arren, gure auzokoen begietara susmopeko kristaua naizela, nire odola ez dela sekula behar bezain garbia izango handikien benetako onspena lortze aldera —adierazi egin nion Logroñon bizi idandakoaz pozik estreinako aldiz.

—Hori ezta zuzena, maitea, den-denok badakite zure gaineko salaketa arerorearen baten azpijokoa izan zela lehiakide bat baztertzeko asmotan —moztu egin zidan Mariak betosko ilunez eta guzti-. Bestalde, gaur egun erregearen zerbitzuean behar egiteko ez dio inori ardurarik kristau berria ala zaharra zaren, ala ez al dakizu Gorteko idazkari ia guztiak gu bezalako bizkaitarrak edo marranoak direnik?

—Eta zer?

—Erregearen zerbitzua dela bide bakarra behin betiko gure auzokoen parera jarriko gintuen titulu bat eskura dezagun.

—Baina nik ezin dut inondik ere nire irabazpide guztiak bertan behera utzi Madril aldera joateko —aldarri egin nion benetan asaldatuta-. Ez ahaztu inoiz, mari musugura hori, gozatzen ditugun jauregi zein ondasun guztiak niri lanari zor dizkiogunik.

—Baita nire aitak Logroñoko espetxetik aska zintzaten egin zizun mesedeari ere... —horra hor nire ordura arteko emazte maitea, bizilagun kuttuna eta hamaika gauzetan ere aferakide, oldarrean zordun larri bilakaturik.

—Zer nahi duzu orduan egitea, Madrilera aldatzea edo? —erronka jo nion bere hiri gorrotomaitatutik alde egiteko inondik ere gauza izango ez zela, hau da, ondo baino hobeto jakinda.

—Gu ez, noski, guk eutsi behar diegu gure merkatal tratuei, bestela nola kokatuko dugun gure primua Madrileko Gortean idazkari edo —erantzun egin zidan harro-harro.

—Orduan gure Martin tippi bidaliko dugu Madrilerara paper-txortan zein potrojorran egin dezan.

—Ez horretarako, motel, ez dut inola ere erdipurdiko idazkari bat izan dadin nahi —azaldu zidan Mariak-, nahi dut erregearen ondoan lan egin dezan betekizun apaetik goreneraino, harik eta bere ekinaren ekinez zein gure zeharkako laguntzaren bidez ere hor nonbait enbaxadore izendatu arte, hori baita biderik zuzenena Erregeak lantzean behin eman ohi dituen tituluetariko bat jasotzeko ezkerrenez.

—Eta nola lortuko dugu gure Matxin Erregearen zerbitzupuan jartzea? —banekien nik ondo baino hobeto erantzuna, baina nire emaztearen ahotik aditu nahi nuen argi eta garbi.

—Badakigu gure Carlos Errege Jauna betiere diru eskean dabilela bere Europa aldeko gatazkei aurre egitearren...

VI

Asmoa zen bai, ni koxkortu bezain laster Madrilera bidaltzea, bertan senitarteko nuen Gorteko gizon garrantzitsu baten menpean lan egiteari ekin beharrean nengoen. Bagenuen gure amaren aldetik ahaide bat Gortean, auskalo zer gradutan, baina erregearen ez dakit zer ahokularitza sailetan idazkari nagusia zena. Konbentzitu behar genuen ni bere lan-tokian ikasle zein bere etxean apopilo onartzeko, hau da, egunero iritsi ohi zitzaizkion eskakizun guztietatik ni hautatzeko. Horretarako, zer esanik, erregearen enpresa anitzek aurrera egin zezaten ezinbesteko diru malguaz gain, gure ahaideari bere duintasunaren neurriko opari on bat ere egin behar genion, alafede. Opari duina eta benetan erabakikorra. Bagenekien ere gure ahaide urrun horren garrantzia zenbat eta handiagoa izan, gero eta opari duin eta garestiagoa egin behar geniola nola edo hala elkarren odolaren lege ez idatziei menegin ziezaien. Ez zegoen erregerai zein gure ahaideari zer nolako malgu edo opari mota egin geniezaieken asko pentsatu beharrik. Erregearen zerbitzura egindako diru malguak ondo baino hobeto erabakita zeuden, gure aitaren merkatal duintasunaren arabera izan behar zuen, ez txikiagoa, ez handiagoa, nire aita bezalako merkatarik batek ezin zuen ofenditu gure erregearen zerbitzua bere duintasuna baino handiagoa omen zen diru malgu batez, ez eta gure amaren leinuaren handikitasuna aldarrikatuz ere; malgua senarraren izenean egin behar zen nahitaez. Eta hau guztiau gutxi bailitzan, kontuan ere hartu behar genuen erretzerbitzarien arteko oreka, hau da, bizkaino eta marranoen arteko tirabiretan inondik ere ez sartzeko, zeren gehiegizko eskaintza bat egin ezkerreko bizkaino baten partetik bazitekeen besteek muzin egitea gure semeari eta ondorioz mota guztietako oztupoak zein azpikeriak asmatzea gure Matxinen idazkari karrera zupuztearren. Bagenuen, jakina, erret-zerbitzari marranoen aurrean Garcia de Olarterren susmopeko odola nolabait aldarrikatzeko, jatorriz marranoak bezain bizkainoak ginela adierazi nahian, hor zegoen froga gisa nire aitajaunaren pasadizu deitoragarria, baina trikimailu honen ondorioa guk uste baino arriskutsuagoa suerta zekigeen bi taldeen aurrean keko-meko egon nahi izaterakoan. Izan ere, nire balizko babeslearen jatorria ezin argi eta jakinagoa zen gure hiriko leinu txit prestu eta ezagun baten kidea zen aldetik: Lopez de Lazarraga zuen abizena. Hobe nuen inorekin inolako aiko-maikoetan ez ibiltzea, zeren Joan Lopez de Lazarragaren babespean ikasi eta bizi izan ezkerreko gainontzeko erret-zerbitzari edota idazkariek bizkainotzat hartuko ninduketen nahitaez.

Bestalde, Joan Lopez de Lazarragari egin beharreko opariaren nolakotasuna erabakitzeotan zegoen. Gure amaren esanetan bere lehengusu urruna ez omen zen oso ondasunzalea, letrak maiteago zituen-eta, poeta eta guzti zuen bere burua, edozein huskeria gogotik onartuko zukeen opari gisa. Nire aitak, ordea, halako gizon handiustekoen artean ohiturazko ziren moduko opari bat egitea erabaki zuen badaezpada, inola ere errefusatu ezingo zuen fideltasun probantza bat.

—Asmatu dut probintzian zehar sakabanaturiko lursailak erosten urteko errentaren hamarrena zure babesleari baldintza zein eperik gabeko mailegu modura emateko. Horrela gure

ondasunak ugaritu eta aldi berean ere Lazarraga jauna gure lursailletako irabazien nondik norakoei lotuta izango genuke urte askoan, gutxien jota bere babesaren beharrik ez izan arte.

Oso ideia borobila nire aitarena, nabarmen zitzaion noraino sartuta zuen odolean bere merkatari sena. Alabaina, non eta nola eskuratu lursail errendagarri guztiok. Aitak aitortu zidan aspalditik ari zela hegoaldeko lurretan bila, Ebro ibaiaren bazterretatik gertu-gertu emankorrenak zirenez, tratutan ibili ohi zen bertako lagunei galdezka menturaz merkataritza alde batera utzi eta lurjabe bilakatu behar zuen bere burua.

—Hiriko bizimodua ez zait batere atsegin, beti ez dakit nik zeren errudun edo begiratzen didate nire auzokokoek. Ez litzaidake inporta hiritik alde egitea lurretik bizi izateko —esan ohi zien bere adiskide bakanei, dena itxura besterik ez bazen ere- Mariari eraikiko diot jauregi ikaragarri eder bat hegoaldeko hiri batean, baliteke Tabornigan bertan, nire arbasoen sorterrian. Eta hala eta guztiz ere ez baldin bazaio laket eskaintzen diodan bizimodu berria, nahiago baldin badu bere bizi osoko hiri alu horretan geratu bere haurtzaroko auzoko handiustekoekiko harremanetan, hor konpon, ustel dadila bere kastako larru sendoen simaurrean nik behinik behin ospa egingo dut aukera izan orduko.

—Ederto ba, aita, baina nondik aterako duzu lurjabe bihurtuko gaituen jainkotxikerra?

Bai noski, diru beharrean geunden etengabe, berak erdi txantxetan edo esan bezala, merkatari ausartaren patua, agian ere bere ezinbestekotasunetariko bat. Dirua gure etxearen merkatal betekizun zein noizik behin ere sortzen zitzaizkigun handiustekoei aurre egiteko, nire amaren leinuaren duintasunarekiko eskakizunak bete ahal izateko, edo bestela esanda, gure auzokoen aurrean dotore eta boteretsu, ezin airosoago edo harroxkoago, agertzeko zein gure jauregian takian-potian antolatu behar genituen gau-jaiak nolabait hiriko sonatuenak izan zitezen.

—Orain arte, eta nire aitak behin eta berriro aholkatu bezala, zorrak ez izaten saiatu egin naiz artez edo moldez. Gaugerero, berriz, prest egon behar gara dena galtzeko —ebatzi egin zuen merkatari saiatuak betilun.

—Zer dela eta, aita?

—Ezingo dugu lursailok erosi ahal izateko behar beste ezkur lortu, lehenik ere gure diru iturria aldatzen ez baldin badugu —nabarmen zitzaion aitari esatear zuena aspalditik hausnartuta zuela.

—Lanaz aldatu nahi duzu, aita? —galdetu nion ia alperrik, ondo asko banekielako hori ez zela bere asmoa.

—Jakina ezetz, nola gainera? Merkataria naiz, artilearen salerosketa dut lanbide, moldatu moldatuko nintzateke beste edozein arlotan, baina badakit ere ikaragarri kostatuko litzaidakeela artilearekin lortutako antzerako arrakasta txikia lortzea.

—Orduan?

—Orduan gure tratuaeren mugak gainditu behar genituzke nahitaez, mozkinak areagotze aldera, bestela gauden bezala geratuko gara —erantzun zidan aitak gogoan zuena asma nezan parada emanaz.

—Gure tratuaeren bidea luzatu? —ausartu nintzen asmatzen.

—Horixe, ene Matxin, ikusten?, zuk ere odolean daramazu merkatuaarena —pozarren baietsi zidan aitak-artilea kostaldean saldu beharrean bere ekoizpen gunetaraino eroan behar genuke.

—Flandeseraino?

—Bete-betean asmatu duzu, seme.

—Esan nahi duzu artilea Arandioko artzainei erosi eta hirian ala kostaldekoetan atzerriko merkatariei saldu beharrean guk geuk itsasontzi bat alokatu eta Flandesen bertan oihalgileei saltzea?

—Bai seme, horixe da nire asmoa.

—Nondik aterako dugu dirua itsasontzia zein gainerako gastu guztiak ordaintzeko? —baldin bazegoen inondik ere ezin asmatu nuen zerbait hori omen zen nire aitaren egitasmoaren bigarren zatia, garrantzitsuena, hain zuzen ere.

—Lehen esan bezala, azken urteotan saiatu naiz kosta ahala kosta inorekin inolako zorretan ez egoten, egia esan hori izan da nire obsesio ia bakarra nire bizi osoan —gogoratu egin zidan azeri begiekin-bestetzuk ordea ez dira ibili ni bezain fin, eta beraiek dira nirekin zorretan daudenak.

—Nortzuk ba?

—Gure auzoko handiki handiustekoak —aitaren begiak azeritik otsora aldatu ziren- ala nondik uste duzu ateratzen zutenik zure amak berak ere hain gustuko zein ezinbesteko dituen asteroko elizkizun zein jai hutsak besterik ez ziren gaubeletan dotore-dotore agertzeko jantzi ezin apain eta garestiagoak ordaintzeko behar adina sosa?

Aitak zorren kitapenaren ordez bere enpresan parte hartzeko akzioak eskatu zizkien zorren diru kopurua bikoiztuta. Horrela zorren ordaina lortu eta aldi berean ere hiriko handiki betiere dirugose haiek mailegutakoa bikoiztuko zuen negozio baten kide bilakatu egin zituen. Bai azkarra nire aita, bai bere zordun harroen berezko zikoizkeria asetzeko argudioak- eta asmatzeko, bai Arandioko partean artillerik onena zein merkeena hautatzeko. Hala ere, aitaren merkatal trebeziak ez ninduen ordea harritzen inondik ere, ondotxo ezagutzen bainuen bere ganora

behin lanean hasita. Izan ere, nire aitag ez zuen lana ogibide hutsa, biziaren funtsa baino, sarri askotan ere ihesbide. Edonolako harremanetan zegoela pozik bizi zen, baliteke zoriontsu gauzak behar bezala joan ezker. Areago tratuok hiritik at egin behar baldin bazituen, hau da, nire amarengandik alde egiteko aukera izan orduko, bere mundu arrotz zein bizigirotusteletik ahalik eta urrunen. Garai hartan sekula ez bezala antzeman nion lanean bilatzen zuen atsegina. Egia esanda, nabari zitzaion negozioa bera ez zela aspaldiko partez hainbeste berpiztu zuena, ez eta balizko mozkinak ere, bere seme kutunaren etorkizunaren onerako egiten ari zen ahalegina baino.

—Aspalditik zakiat nik hi ez haizela traturako jaioa, letretarako iaioa baino —aitortu egin zidan behin batean-, hiri alu honetan geratzekotan ez zara inoiz zoriontsua izango, ez behintzat ni nire lanean naizen bezainbeste.

Dena dela, behin artilearen hautaketa egin eta honen kostalderainoko garraioa burutu zein bete beharrezko bi galera eder eta txukun alokatu eta gero, benetako arazo zein eragozpenak hasi zitzaizkigun ia erreskadan. Gaztelako flotak udaberrian irten behar zuen Flandes alderantz urtero bezala. Bien bitartean aitari, ordea, Burgos eta Anbereseko kontsulatu baimenen zenbatekoaren inguruan edota gure tripulazioarekiko bestelako betekizun zein soldatak nola edo noiz ordaintzeko ezusteko eragozpenak pilatu zitzaizkion.

—Badirudi norbait joan zaiela ni judu-kumea naizeneko kontuarekin eta nola edo hala larrutik ordaindu behar diedalakoan esperoan ditut.

Baina ez zegoen jadanik atzerabiderik, alde batetik artilea Laredon bertan bazegoen aspaldiko partez Holanda alderantz noiz irten zain, portuko biltegian etengabeko kastuak sortzen eta baita usteltzeko bidean ere, eta bestalde hiriko handi-mandiak bere atzetik zituela ia egunero euren sosaz galdezka.

—Pertsona bakarra dago ezagun edo ustezko lagun ditugunen artean Burgoseko kontsulatukoa konpon diezagukeena —aitak inondik ere hartu nahi izan ez zukeen erabakiaz ari zela ematen zuen-. Lazarraga jaunarengana jo behar genuke nahitaez laguntza eske, bestela akabo, dagoeneko ez dut Burgoseko lukurreruek eskatu bezainbeste dirurik, horrenbestez men ere egin behar genioke hain leinu boteretsuko kide den poeta horren gutziari.

—Zer dela eta, aita?

—Poeta izanda ere aitoren seme dugulako Joan Lopez de Lazarraga jauna —aitak hasperen egin zuen-. Bere etxean apopilo eta Gortean ikastun onar zaitzan oparitxoaz aparte, ziurrenean artilearen tratutik ere zenbait etekin atera nahi izango du.

Aita zuzen zegoen betiko legez, Lazarraga jaunak Anbereseko salerosketaren ehuneko lotsagarri bat eskatu zigun, bere hitzen arabera Burgoseko funtzionario antisemita porrokatuen erreparoa modurik erabatekoenean zuritzearren. Zeren, berak esan bezala ere, Kontsulatuko

arduradun zituen senitarteko zein erkideen elkartasunera jo ez ezik, euren patrikeraren elkortasuna ere limurtu behar baitzuen gehienbat.

—Artilea deskargatu egin badute Anbereseko portuan orain dela hiru egun —berri eman zidan aitak bere praktetan pozaz ezin kabituz-, erosleak bereganatu bezain agudo itsasontziak Espainiara itzuliko dira bertan saltzeko merkantzia berriaz.

VII

Nik hiritik alde egiten dut. Bazen garaia, ba, nire bizi osoko ametsa, nire bizi asmoa egia esanda, nire burua benetan libre ikusteko aukera bakarra, ondo asko baitakit hemen inoiz ezingo naizela zoriontsua izan, betiere Garzia Olarteko bat izango naiz, merkatari handi-mandi zikin bat nire auzoko gehienen begietara, judu kume ezkutu bat Inkisizioarenetara. Ni banoa hegoalderantz bizimodu berri baten bila. Banoa txikitandik atsekabetzen ninduen hiri hetsi eta hits hau atzean utzita, banoa nik eta niretarrek euren lekua asmatzen inoiz lortu ez duten hiri urritik, nire leinu ilun eta eskasekoei betidanik muzin egin zien hiri arranditsutik, nire duda-mudazko kastakoak noiz edo noiz erroitik erauziak izango garen hiri kristau zahar honetatik gu bezalako etengabeko susmopeko hiritarrak arriskutsuak garelakoan. Berdin die gehienak baino artetsu edo saiatsuagoak garen hamaika lanbide edo zientzian.

Denok badakigu gehienok larrilarri, ia hilzorian, daudenean gutako mediku baten bila doazela antxintxiketan, kristau faltsuak eta guzti ere izanda hiriko hoberenak garelakoan, badaezpada. Banoa sekula santan ez itzultzeko, eta ez naiz hemendik ospa egiten duen nire kastako bakarra, nire aita ere laster ospa egingo du bere etxea Miranda de Ebrora aldatzeko. Bai, jaun-andreok edo dena-delakoak, Flandeseko ehunak edo bertan hauekin irundako oihal, mihise edo bestelako zapi txit estimatu batzuk ere ez ziren inoiz iritsi gure kostaldeko inongo porturaino. Flandesen artilearen diruaz erositako merkantzia osoa guk alokaturiko itsasontzietara igo eta itsaso zabalera ere irten egin zen alafede. Hala ere, Flandeseko kostaldetik mila bakan batzuk urrunduko Gillen Orangeko heretiko madarikatuaren ordainpeko Itsasoko Eskale famatuek gure itsasontziak harrapatu eta Frantziako hugonoteen agindupean zegoen La Rochelleko kai menderaezineraino desbideratu egin zituzten harrapakin gisa.

Dena galdu egin genuen, dena. Alabaina, gutxien galdu egin zutenak gure etxeko ateraino etorri zitzaizkigun euren diru apurren nondik norakoez galdezka, mehatxuka ere, euren maileguak hainbat arinen berreskuratzeko eskubide osoa zeukatela aldarrikatuz gure itsasontziei suertatutakoa lapurreta hutsa izan arren. Jakina, zeharo hondatuta geunden eta ez genuen zerekin erantzun haiek eskatzen zizkiguten zorrei. Haiek, noski, guk baino hobeto zekiten halako kinketan inor ez dela, ezin dela izan, errudun. Bost axola zien gure errege Felipe Handiari kalte egiteko propio itsas lapurreta bat izanak, gure etxea itsasoko legearen arabera erabat errugabekoa izatea, ez eta nire aita berak gure senide zein adiskideei hutsaren truke erregututako diru osoa bildu orduko mailegu guztiak banan-banan itzuliko zizkiela Jaungoikoaren aurrean aginduta ere.

Ez ziguten sinesten, ez zuten nahi. Horregatik nire aita itsasoan egiatan gertatutakoari buruz gezurretan zebilen leloa zabaldu egin zuten bolo-bolo. Bera bezalako juduek zein kristau berriek oso ohiko zuten iruzur bat zela, bera bezalako judu zein kristau berriek Flandes zein Frantziako herejeekin harremanetan zeudela aspaldi-aspalditik Espainiako Errege txit katolikoaren kalterako. Zorionez Burgoseko kontsulatuak ordea gezurtatu egin zituzten funtsik gabeko

salaketa guztiok. Ez zuten egin, noski, benetan estimatzen gintuztelako susmopeko kristauak ginen aldetik, Holandako erreboltaiekiko guda gupidagabekoa zela medio itsasoan gero eta maizago ematen ari ziren eraso zein lapurreten galerek merkatari eta hauen bezeroen artean eragin zitzaketen auzi zein liskarrak ez areagotzearren, Erresumako hirietako bakea beti helburu. Badirudi gorenetik etorritako erabaki bat zela, katolikoek ez zutela inondik ere erantzun behar guda horretan galdutakoaz, herejeek beraiek baizik gure armadak menderatu orduko, auskalo noiz.

Nolabait ere, Erregeren aginduei jaramonik muzin eginez ere gure behin-behineko bazkideei ia egunero gure etxean ate joka jardun egin dute irekitzeko orroka. Badakite ondo baino hobeto oraingoz, eta baliteke gure senide zein adiskideen aldetik iristen zaizkigun ezezkoen arabera etorkizunean ere, ez dugula inolako biderik eurekiko zorrak laster eta oso-osorik kitzatzeari aurre egiteko. Ez zaie batere ardura, ordea, mailegutakoa berreskuratzeo aukerarik ez izatea. Haiek benetan bila ari direna guri aspalditik gutiziatu eskarmentua ematea da, behin betikoz eta galdutakoaz haraino doan mendekua hartzea. Hortakotz, gu kikiltzen, laidoztatzen, zokoratzen saiatu egin dira gau eta egun, kalera irten orduko gure musuetan erdeinuzko gorroaren mehatxua edo menturaz ere bizkar gainean aizto zorrotzaren hotza senti genitzan etengabe. Hala ere, egon bada nire aitak aurre egin ezin dion mehatxu bat: bere emazteak berak egindakoa ustekabe.

—Zuk dena galdu duzu, baina nik ez dut inolako asmorik dudan bakarra galtzeko —adierazi egin zion zurrun-zurrun nire ama maiteak.

Lehenbizian hiriaren goialdeko jauregiak ari zela uste izen genuen. Okertu ginen, gorde egin nahi zuen bere izenpean, bai, baina hala eta guztiz ere ez zen gehien kezkatzen zuena. Gure amak inondik ere galdu nahi egin ez zuena Ollauritarren leinu ondratuaren partetik oinordeturiko ondra omen zen, duda izpirik gabe bere lehentasun ia bakarra.

—Nik uste dut gure bideak elkarrengandik banandu beharrean gaudela, gutxienez gauzak bere onera itzuli arte, jendeak jauregi hau Teresa Martinez Ollauriko andrearena dela gogoan har dezan, eta ez behin hiriko jauntxo batzuei iruzur egin zien merkatari judu kristautu batena.

Ama bere jauregi ederrean geratu eta aita, aldiz, Miranda alderantz bizitzera aldatuko zen probintziako agintari zein lege berezien eskupetik at, baina aldi berean ere hiritik gertu-gertu bertan eta ingurumarietan zituen interesei atxikita jarraituko baitzen. Ni, ordea, banoa aspaldi erabaki bezala. Alde egiten dut, baina ez nire gurasoek agindu egin zidaten etorkizun oparo, dirdiratsu, batik bat ohoragarria hasteko asmotan, hots, Madril alderantz, gure Erregeren Gortean zain ninduen eta orain gure zorduna den Joan Lopez Lazarragako jaunaren babespera. Ez, gortesau bilakatzeko asmoa zen bidea okertu zaizkit zeharo. Nire aitak txikitatik irakatsi edota jarauntsitako merkatal bertuteak profitatze aldera zein nahitaez nire amaren leinuaren ondren neurrikoa izan behar duen ogibide bat topatzearren, urrutiago joan beharrean nago, inork inolako zorrik jaso nahi izango ez didan hiri batera, ezeren susmopekoa edo inoren

mesprezu zein irainen mendekoa izango ez naizen herri batera, nire hemengo etsai amorratuengandik ahalik eta urrunen biziko naizen lurralde berri batera. Banoa Ameriketara, bizimodu berri baten bila, hutsetik hasteko asmotan, egiazko gizon libre izateko gogoz, hainbeste nazkatzen nauen mundu zahar bidegabe zein gupidagabeko honetatik asago, nire auzokoen gorroto eta beldurrei purrust eginez, nire ama bezalako jaun handiustekoei bizkarra emanaz, izan nahi nuen gizonari muzin eginez. Banoa bai, harresiko Hegoalde edo Eguerdiko atetik Sevillarantz, non itsaso zabala zeharkatu ahal izateko nire odol garbiaren froga guztiak, aspaldi nire aitak behar bezala asmatu eta ordaindutako agiri zigiludunak, azkeneko aldiz erakutsi eta ordaindu ere behar izango dizkiedan gure Errege txit katoliko eta are egoskorragoren erresumako zerbitzari zikoitzei. Banoa ere oraindik egun argitan, ilundu aurretiko azken orduan bertan, kaleko jendetza gutxitzen hasi denean, azoka eguneko harrabotsa ia zeharo itzalita, azokariak euren dendak zein tamalez ez saldutako merkantziak biltzen hasi direnean. Badago atso bat ezagun begitantzen zaidala, ni ikusi orduko burua makurtzen duena. Auskako zer dela eta, baliteke Garzia Olarteko merkataria herragarri zein judu odolekoaren semea ezagutu izana, baliteke ere hiritik ospa egiten duen iheslari madarikatuaren patu beltzak inondik ere kutsatzea nahi ez izatea. Niri bost axola, ni banoa hemendik behin betiko, ez naiz inoiz itzuliko, inork ez nau geldiaraziko.

—MARTIN!!! Nora zoaz orain?

Neska batek hots egin dit. Ez dut ezagutzen. Baliteke hor nonbait, noizbait, nik maitemindua, oso gonazalea izan naiz- eta beti. Baina ez dut inolako gogorik inori azalpenik emateko, ez eta inor zor ez diodan agurrik emateko.

—Ameriketara noa!

—Noraaaaa? Zer hostia da hori, hiri inguruko putetxe baten izena ala? —galdetu egin dit gero eta ezagunagoa egiten zaidan neskatoak.

—Ameriketara, alde egiten dut inork ezagutzen ez nauen mundu berri baterantz, libre izango naizen lurralde batera, zu bezalako urraiztar begigaiztoak jasan behar izango ez ditudan hiri bat sortzearren —saiatzen naiz aditzera ematen nola edo hala baina inolako gogorik gabe.

—Zer arraio diozu? Ni ez naiz hemengoa, ni Sara naiz, zure Oviedoko neskalguna edo, azokara sartu orduko abandonatu egin duzuna Algareria plazako sorgin haren pattarra gogotik edateko —neskatoak bere buru ezin samurragoa aurkeztu orduko nire onera itzuli nintzen ziplo.

—Orduan ez nago inorekin zorretan?